ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

ZERBITZU-KONTRATUA

Prozedura irekia

Espediente zk.: SE/22/21

Objektua: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN, 2021-2022 IKASTURTEAN, "MUSIKARIAK IKASTETXEETAN" EUSKARAZKO HEZKUNTZA-PROGRAMA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, HONAKO MAILA HAUETAKO IKASLEENTZAT: BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK, BATXILERGOA ETA ERDI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETAKO ZIKLOAK.

Edukia:

Kontratuaren klausula espezifikoak.

Baldintza orokorrak.

Eranskinak.

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK 6

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK 6

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA 6
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK 6
3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 6
4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 7
5.- PREZIOA ETA ORDAINKETAK 7
6.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA 9
7.- PUBLIZITATE-GASTUAK 9
8.- BERMEAK 9
9.- ASEGURUAK 9
10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA: 9
11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK 9
12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK 11
13.- ZIGORRAK 12
14.- AZPIKONTRATAZIOA 13
15.- ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA 13
16.- KONTRATUA ALDATZEA 13
17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK 14
18.- KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 14

II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK 15

19.- ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK 15
20.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA 16
21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA, ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA 16
22.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK 17
23.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK 19
24.- GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA 19
25.- ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK 20
26.- PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK 21

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK 22

27.- KONTRATUA LAGATZEA. KONTRATUA LAGATZEKO BESTE KASU BATZUK AURREIKUSTEN DIRA, BALDINTZA OROKORREN 35.1.1 KLAUSULAN AURREIKUSTEN DIRENEZ BESTELAKOAK: 22
28.- GIZARTEKO, INGURUMENEKO ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA 22

BALDINTZA OROKORRAK 23

I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK 23

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA 23
2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK 23
3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA 23
4.- HAINBAT ARLOTAKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LANEKO BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA DATUEN BABESA 24
5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA 24
6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA 24

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA 25
8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN BETEARAZPEN-EPEA EDO IRAUPENA. LUZAPENA 25
8.1.- Traktu bakarreko kontratuak: 25
8.2.- Segidako traktuko kontratuak: 25
8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena: 26
9.- BERMEAK 26
10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK 26

II.- LIZITAZIOA 29

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK 29
12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA 30
12.1.- Hizkuntza 30
12.2.- Bitartekoak 30
12.2.1.- Bitarteko elektronikoak 30
12.2.2.- Elektronikoak ez diren bitartekoak edo paperekoak 31
12.3.- Konfidentzialtasuna 32
12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea 32
12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak 32
12.5.1.-Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak. 32
12.5.2.-Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea. 33
12.5.3.- Elektronikoak ez diren bitartekoen bidez edo paperean aurkeztea eskaintzak. 33
13.- A GUTUN-AZALA: «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA». 33
13.1.- Gutun-azal horretan bildu behar diren dokumentuen zerrenda: 33
13.2.- Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan: 34
13.3.- Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko erregela zehatzak: ... 34

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA 36

14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA 36
15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA. 36
16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA. 37
16.1.- Gutun-azalak jendaurrean irekitzea. 37
16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea. 37
16.3.- Salbuespena: aditu-batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatzea. 37
17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA 37
17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK 37
17.1.1.-Balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak erabiltzen dira 37
17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak. 38
17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA 38
18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA 38
19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK 38

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA 40

20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA 40
21.- ADJUDIKATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 40
22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA 41
23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA 42

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA 43

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA 43
25.- ZERBITZUAK EMATEA 43
25.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea. 43
25.2.- Lan-programa. 43
25.3.- Baimenak. 43
25.4.- Aseguruak. 44

25.5.- Lankidetza. 44
25.6.- Kontratistaren erantzukizuna. 44
25.7.- Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan eman beharreko kalte-ordaina. 44
26.- HORNIDURA EMATEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK 44
26.1.- Baliabideak adskribatzeko konpromisoa. 44
26.2.- Langileei buruzko erregela zehatzak. 45
26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa. 46
26.4.- Kontratua betearazteko lekua. 46
26.5.- Kaltegabetasun-erregela. 46
26.6.- Langileen subrogazioa. 46
27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN 47
28.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK 48
28.1.- Hizkuntza arloko baldintzak. 48
28.2.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak: 49
28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea. 49
29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA 49
29.1- Konfidentzialtasuna. 49
29.2.- Datu pertsonalen tratamendua. 49
30.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK 53
30.1.- Lanen jabetza. 53
30.2.- Jabetza industriala eta intelektuala. 53
31.- ZIGORRAK 54
31.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak. 54
31.2.- Prozedura. 55
32.- PREZIOAREN ORDAINKETA 55
32.1.- Emandako edo egindako zerbitzuen ziurtapena. 55
32.2.- Adostasuna eta fakturaren erregistroa. 56
32.3.- Ordainketa. 56
33.- KONTRATUA ALDATZEA 56
33.1.- Baldintzak. 56
33.2.- Prozedura. 57
33.3.- Ondorioak 58
34.- AZPIKONTRATAZIOA 58
34.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea. 58
34.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea. 58
35.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEA OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA. 59
35.1.- Kontratua lagatzea 59
35.2.- ABEEa osatzen duten kideak aldatzea. 60

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA 62

36.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA 62
36.1.- Entregatzea eta dena behar bezala bete den egiaztatzea. 62
36.2.- Akatsak zuzentzea. 62
36.3.- Harrera egitea. 63
36.4.- Likidatzea. 63
37.- BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA. 63
37.1.- Kontratistaren betebeharrak. 63
37.2.- Bermea itzultzea: 64
38.- KONTRATUA AZKENDU BEHAR DENEAN. 64

VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA 65

39.- GORABEHERAK 65
39.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak. 65
39.2.- Prozedura. 65
40.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA. 65

ERANSKINAK 66
LABURPEN-KOADROA..... 66

KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKOAK

I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

1.1.- Definizioa: "MUSIKARIAK IKASTETXEETAN" EUSKARAZKO HEZKUNTZA-PROGRAMA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA 2021-2022 IKASTURTEAN, HONAKO MAILA HAUETAKO IKASLEENTZAT: BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK, BATXILERGOA ETA ERDI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETAKO ZIKLOAK, baldintza tekniko partikularren pleguan jasotakoaren arabera.

"Musikariak ikastetxeetan" izeneko hezkuntza-programa Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea garatzeko "NOLEGA" ("*Normalizazio Legearen Garapena*") programaren barruan dago, eta baldintza-agiri honetako baldintzak eta Baldintza Teknikoen Agirian (aurrerantzean, "PPT") agertzen diren baldintzak betez garatuko da.

1.2.- Sortakako zatiketa: Ez

Irizpideak batzeko eta baterako kudeaketa errazteko, ez da loterik egingo. Honela, ikastetxe guztietan zerbitzu bera emango dela bermatu nahi da.

1.3.- CPV kodea:

Objektua	Deskribapena	Kode nagusia
Nagusia	Irakaskuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak	80000000-4
Osagarria	Ekitaldi zerbitzuak	79952000-2

1.4.- Jarduerak sailkatzeko beste sistema batzuk: Ez

1.5.- Traktua: Segidakoa

Kontratuaren objektua osatzen duten prestazio-unitateen kopurua zehazki definitzen da: Bai

Departamentuaren beharrak asetzeko, kontratua gauzatzeko epean 338 saio egin behar direla erabaki da. Hala ere, kontratua indarrean dagoen bitartean egiaztatzen bada botere esleitzailearen benetako beharrak hasieran emandakoak baino handiagoak izango direla (Baldintza Teknikoen Agiriaren II. Eranskinean zehazten den bezala), eta enpresa kontratistak eskainitako gehieneko prezio unitarioa kontuan hartuta, **hasieran aurreikusitako (338) saio-kopuru handiagoa egiteko eskatu ahal izango da, hasierako aurrekontua agortu arte.**

1.6.- Beste ezaugarri espezifiko batzuk: bai, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzan kontratua da..

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 2. klausulan azaltzen direnak.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA

3.1.-Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 131.820,00 eurokoa da, BEZ-ik gabeko kontratua da (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 20.9 artikuluan xedatutakoari jarraiki), **eta urte hauetan ordainduko da:**

- 2021. urtea: 64.940,00 euro (*)
- 2022. urtea: 49.980,00 euro (*)

(*) Saioak jasoko dituzten ikastetxeek egin beharreko ekarpenak gehitu beharko zaizkie zenbateko horiei, kontratuaren klausula espezifiko hauetan 3.4 eta 5.2 puntuetan azaltzen den bezala.

Kalkulatzeko kontuan hartu diren kostu eta gastuak I.1 ERANSKINEAN daude azalduta.

3.2.- Aurrekontu-aplikazioa: 21.0.1.07.21.0012.1.238.99.47153.012/M

Aurreko puntuan adierazitako zenbatekoak bat datoz **114.920,00 euroko** zenbatekoarekin. Hezkuntza Sailari dagokion zatiari dagokiona. Kontratuaren aurrekontu osoaren xehetasuna 3.4 puntuan zehazten da.

3.3.- Aurretiazko izapidetzea: ez

3.4.- Gastua kofinantzatuta dago: Bai

- Hezkuntza Sailari dagokion aurrekontu-esleipena: 114.920,00 €(goiko 3.2 puntuan zehaztutako aurrekontu-aplikazioari dagokiona).

- Dagoen aurrekontu-esleipenari zerbitzuaren zentro hartzaileen partaidetza ekonomikoaren zenbatekoa gehituko zaio: 50,00 €saio bakoitzeko. Aurreikusitako saioak 338 direnez (betiere Hezkuntza Sailaren protokoloek eta jardueraren unean indarrean dagoen osasun-araudiak horretarako aukera ematen badute), ikastetxe hartzaileek 16.900,00 €ordaindu behar dituzte (338 saio x 50 €saio bakoitzeko). Zentro hartzaileak zuzenean ordainduko dio zenbateko hori enpresa esleipendunari, kontratuaren klausula espezifiko hauen 5.2 puntuan zehaztutako moduan.

4.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

4.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia 131.820,00 eurokoa da.

4.2.- Kalkuluaren metodoa:

Lizitazioaren aurrekontua (BEZik gabe)	131.820,00 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe)	(*)
Lizitatzaileei ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe)	
Aukeren zenbatekoa (BEZik gabe)	
Luzapena (BEZik gabe)	
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	**131.820,00 €**

Kontratuaren gehienezko balio zenbatetsia kalkulatzeko, unitate-prezio maximoa (390 €/saioa) bider unitateak (338 saio) egin behar dira, unitate horiek hasieran aurreikusitako saio presentzialei dagozkie. Hala ere, osasun-egoera dela eta, agiri honetako kontratuko klausula espezifikoetako 16. puntuan azaldutakoaren arabera, saioak on line ematen badira, saioen

5.-PREZIOA ETA ORDAINKETAK

5.1.- Prezioa zehazteko sistema: prezio unitarioak.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen duten eskaintzak 131.820,00 (BEZik gabe), baztertu egingo dira.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko, saio bakoitzeko gehieneko prezio unitarioa (390,00 €/ saio) bider kontratu horretarako zenbatetsitako guztizko saioen kopurua (338) egin da, jarraian adierazten den bezala:

SAIOAK GUZTIRA	OINARRIZKO AURREKONT. (€/saioa)	OINARRIZKO AURREKONT. GUZTIRA
338	340,00 €+50,00 € (*)=390 €	131.820,00 €

(*) Saio bakoitzeko gehieneko prezioa baldintza-agirien 5.2. puntuan zehazten den moduan ordainduko da; izan ere, prezio hori ikastetxeekin batera finantzatuko da, baldintza-agiri honen 3.4. puntuan azaltzen den bezala.

Unitateko gehieneko prezioa 390 eurokoa da saio bakoitzeko, BEZik gabe. Lizitatzaileek **ezin izango dute unitateko prezio hori gainditu, eta hala egiten badute, lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira.**

Enpresek eskainitako prezioan, kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko behar diren langileen, ekipo guztien eta lanen kostua sartu beharko da. Enpresa lizitatzaileek proposatuko dituzte hornidura gauzatzean aplikatuko diren prezio unitarioak, eta horiek hautatutako eskaintzatik ateratzen direnak izango dira. Unitate-prezioak ez dira aldatuko kontratua indarrean dagoen bitartean, aipatutako gehieneko tasen gainean, baldintza-agiri honetan aurreikusitako arrazoiengatik izan ezik (ikus baldintza-agiri honetako baldintza espezifikoen 16. klausulan aurreikusitako aldaketak).

Prezio horiek gehienekoak dira, eta, beraz, horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

5.2.- Prezioa ordaintzeko modua: Ondorengo aldizkakotasunarekin egingo diren ordainketa partzialak: **hilekoa, amaitutako hilabeteari dagokiona**, **behin egindako prestazioei dagokien faktura aurkeztuta eta aurkeztu beharreko justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren, Baldintza Teknikoen Agiriko 6.1 puntuan jasotzen denari jarraituz. Hala ere, azken ordainketa jasotzeko,(ekainean egin beharrekoa) Baldintza Teknikoen Agiriko 7.6 puntuan aurreikusitako azken memoria aurkeztu beharko da.**

Benetan egindako zerbitzuengatik baino ez da ordainduko, baldin eta horiek modu frogagarrian egiaztatzen badira, arestian aipatutako bitartekoen bidez (Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako egiaztagiriak aurkeztuz) eta faktura aurkeztu ondoren (egindako prestazioen arabera). Egin gabeko zerbitzuak ez dira inola ere kobratuko.

- Ikastetxe hartzaileei dagokien zenbatekoa zuzenean ordainduko diote zentro hartzaileek enpresa esleipendunari, dagokion saioa egin ondoren eta 5.2 puntu honetan adierazitakoa adierazten duen faktura aurkeztu ondoren.

  Ikastetxe bakoitzak saioa erreserbatzeko dokumentua sinatuko du enpresarekin, eta bertan saio kopurua, zein ikaslerentzat den eta ordaintzeko konpromisoa adieraziko dira, saioa egin baino hogei (20) egun lehenago.

- Administrazioak ordaindu beharreko zenbatekoa esleipenaren zenbatekoari ikastetxeei dagokien zenbatekoa kentzearen emaitza izango da. Botere adjudikatzaileak ordaindu beharreko zenbateko hori hilero ordainduko da (5.2 puntu honen lehen paragrafoan zehazten den moduan), hilabete bakoitzari dagokion saio-kopuruaren arabera (erregistro elektronikoak faktura bidali ondoren eta egindako prestazioaren egiaztagiriak jaso ondoren). Horretarako, esleipendunak dagokion faktura aurkeztuko du, kontzeptu gisa dagokion hilabetea eta fakturatutako saio kopurua jasoz.

5.3.- Prestalanak daude: Ez

5.4.- Prezioak berrikustea: Ez

5.5.- Epeekin edo errendimenduekin lotutako zenbait helburu betetzearen ala ez betetzearen arabera prezioa aldatzeari buruzko klausula: Ez

6.-KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN IRAUPENA EDO BETEARAZTEKO EPEA. LUZAPENA

6.1.- Iraupen osoa edo betearazteko epe osoa edo mugaeguna: kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik 2021-2022 ikasturtea amaitu arte; 2022ko ekainaren 30ean amaitzea aurreikusten da, zerbitzua kontratatzen den aldi akademikoarekin batera.

6.2.- Hasiera-eguna: kontratua sinatu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Hasiera-data 2021eko urriaren 1a izango da gutxi gorabehera, betiere formalizazioa aldez aurretik egin bada.

6.3.- Epe partzialak: Ez

6.4.- Kontratua luzatzea: Ez

7.- PUBLIZITATE-GASTUAK

Ez dago horrelakorik.

8.- BERMEAK

8.1.- Behin-behineko bermea: Ez

8.2.- Behin betiko bermea: Bai, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5 (BEZik gabe).

8.3.- Berme osagarria: Ez

8.4.- Zilegi da bermeak prezioa atxikita eratzea: Ez

8.5.- Harrera partziala bada, bermearen zati proportzionala itzultzea edo ezereztea eskatu ahal izango du kontratistak: Ez

8.6.- Bermeak honen alde eratuko dira: Eusko Jaurlaritza **IFZ:** S4833001C

9.- ASEGURUAK

Kontratistak nahitaezko aseguruak eta dagozkion aseguru espezifikoak izan beharko ditu eta kontratua formalizatu aurretik egiaztatu beharko ditu: bai

10.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA:

Ez da behar.

11.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldin eta kontratuaren xedearekin lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluaren arabera, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak badira eta lizitazioaren iragarkian adierazten badira.

11.1.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:

11.1.1.- Baldintza orokorren 28.2 klausulan bildutako baldintza bereziak, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa betez.

11.1.2.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako, Emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak txertatzeari buruzko Instrukzioaren VIII. atala betetzeko eta kontratazio publikoan soldata-ezberdintasunaren aurkako neurriak hartzeko. Instrukzio hori Gobernu Kontseiluak onetsi zuen 2019ko martxoaren 5eko bilkuran eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 87. zenbakian, 2019ko maiatzaren 10ean.

11.1.3-Beste batzuk: Bai, honako hauek:

11.1.3.1.- Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean integralki babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betetzeko, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko da, Preskripzio Teknikoen Agirian zehazten den bezala.

Hala ere, interesdunek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua). Beraz, sexu-delitu eta gizakien salerosketari buruzko ziurtagiri hori administrazioak berak eskatu ahal izango du, botere esleitzaile gisa. Horretarako, enpresa lizitatzaileek aldez aurretik konpromisoa hartu beharko dute (II.2. ERANSKINA), eta, ondoren, II.2 Bis ERANSKINA bidali, kasuan kasuko saioak emango dituzten musikarien datu pertsonalak jakinarazteko.
Eranskin horren bidez, Administrazioari baimena ematen zaio datu horiek lortzeko, baldin eta berariazko aurkakotasunik ez badago.

11.1.3.2.-Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunari dagozkion egikaritze-baldintza bereziei dagokienez, enpresa kontratistak edota azpi-kontratistak emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du ondorengo guztietan: tratua, enplegura sartzea, sailkapen profesionala, sustapena, iraunkortasuna, prestakuntza, iraungitzea, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolaketa. Era berean, aplikatzekoa da 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 18.4 artikuluan xedatutakoa; hain zuzen ere, Euskal herri-aginteek ez dutela hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

11.2.- Ingurumen arloko baldintzak: Ez

11.3.- Baldintza etikoak: Ez

11.4.- Hizkuntza arloko baldintzak: Bai. baldintza orokorren 28.1 klausulan ezarritakoak.

Horrez gain, kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, eta **Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duen araudiak arautzen dute.**

Baldintza teknikoen agiritik ("PPT") ondorioztatzen denez, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek zerbitzua euskaraz ematea eskatzen dute, eta, beraz, hizkuntza ofizial hori erabiltzea kontratua betetzeko baldintza bat da, eta hori ez betetzeak kontratu honetako edozein klausula ez betetzeko oro har aurreikusten diren ondorioak dakartza, bai eta baldintza-orri honetako 13.2 klausulan zehazten diren ondorio espezifikoak ere.

Kontratua gauzatzean, baldintza-agiriko klausulan ezarritako hizkuntza-baldintza zehatzak eta ondoren finkatutakoak bete behar dira:

Oro har, eta bestelakorik adierazi ezean, euskara erabiliko da kontratistaren eta kontratuan harremanetan egongo diren erabiltzaileen edo pertsonen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan.

Euskararen Hizkuntza Normalizazioari buruzko Legearen 17. artikuluak ezartzen du ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak berdin erabiltzeko gaitasuna izan behar dutela.

Hori da Hezkuntza Sailaren helburu nagusietako bat; horretarako, euskararen erabilera bermatuko du, bai ikastetxeko eskola-orduetan, bai jarduera osagarriak eta zerbitzukoak egiteko ordutegian.

Horregatik, kontratu honen eraginpeko langileek behar adinako euskara-maila izan beharko dute aurreikusitako saioak emateko, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako baldintzen arabera.

11.5.- Datuen babeserako baldintzak: baldintza orokorren 28.4 klausulan ezarritakoak.

11.6.- Berrikuntzaren arloko baldintzak: ez

11.7.- Beste batzuk: kontratistak azpikontratistei hitzartutako prezioa ordaindu beharko die SPKLren 216. artikuluan adierazitako epe eta baldintzetan.

Kontratua betearazteko baldintza bereziak <u>azpikontratista guztiei</u> eskatuko zaizkie.

12.- KONTRATUAREN FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN, GIZARTE EDO LAN ARLOETAKO BESTE BETEBEHAR BATZUK

12.1.- SPKLren 211. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letran aurreikusitakoarekin bat, kontratua suntsiarazteko arrazoi diren funtsezko kontratu-betebeharrak:

12.1.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan azaldutako betearazteko baldintza bereziak.

12.1.2.- Kontratua betearazteari adskribatzea **II-2 ERANSKINEAN ("Baliabideak adskribatzeko konpromisoa")** agertzen den erantzukizunpeko deklarazioan azaldutako baliabideak, bai eta giza baliabideak eta/edo baliabide materialak ere, baldin eta adjudikazio-prozeduran kaudimen teknikoa edo profesionala betetze aldera halakoen jabetza eta/edo eskuragarritasuna egiaztatu bada.

12.1.3.- Prestazioaren atal jakin batzuk edo lan zehatz batzuk kontratistak berak egiteko daukan betebeharra, kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 eta 18.3 klausulen arabera.

12.1.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontrataziorako adierazitako baldintzak, baldintza orokorren 34.1 klausularen arabera azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea eta SPKLren 215.2 artikuluko c) letraren arabera larrialdi edo premia egoera determinatzen duen inguruabarrak egiaztatzea.

12.1.5.- Datu pertsonalen babesari dagokionez, kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura, kontratistak honako hauek egin beharko ditu:

12.1.5.1.- Baldintza-agiri honetan jasotako helburua betetzea, horretarako laga baitira datuak.

12.1.5.2.- Ez aldatzea zerbitzarien kokapena eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak emateko lekua, kontratistak kontratua formalizatu aurretik aurkeztutako deklarazio baten bidez adierazitakoak, aldez aurretik kontratazio-organoari jakinarazi gabe.

12.1.5.3.- Ez aldatzea kontratistak bere eskaintzan adierazitako azpikontratista(k), zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatuta dituztenak, aldez aurretik kontratazio-organoari jakinarazi gabe.

12.1.5.4.- Gai honen inguruan kontratazio publikoaren araudian aurreikusita dauden betebehar guztiak.

12.1.6.-Beste batzuk: bai, honako hauek:

12.1.6.1.- Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean integralki babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betez, **Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko da, Baldintza Teknikoen Agiriaren 6.4 puntuan ezarritakoarekin bat etorriz** (betiere, saio bakoitza egin aurretik, eta hezkuntza-programa kudeatzen duen administrazio-unitatean aurkeztuta, hau da, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak Euskara Unitatean).

12.1.6.2.- Espediente honen xede den zerbitzua betetzea, Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako ezaugarrien arabera. Halaber, esleipendunak PBTn ezarritako gainerako prestazioak bete beharko ditu.

12.1.6.3.- Azpikontratistei hitzartutako prezioa ordaindu beharra, SPKLren 216. artikuluan adierazitako epe eta baldintzetan.

12.1.6.4.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoarekin bat datorren **berdintasun-plana** eduki beharra. Plan hori **dagokion aldizkari ofizialean gorde, erregistratu eta argitaratu beharko da**, urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretua betez. Dekretu horren bidez, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dira eta hitzarmenak erregistratu eta gordetzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen da.

12.1.6.5.- **Preskripzio teknikoen agirian (PPT)** ezarritako eginkizun edo zeregin guztiak betetzea.

Funtsezko kontratu-betebeharren artean edozein ez betetzea arau-hauste astuna da SPKLren 71.2 c) artikuluaren ondorioetarako.

12.2.- Ingurumen, gizarte edo lan arloetako beste betebehar batzuk:

12.2.1.- Ingurumen arloko betebeharrak: bai, Europako ingurumen-araudia betetzea.

12.2.2.- Gizarte edo lan arloetako betebeharrak:

12.2.2.1- Langileen soldata-baldintzak betetzea, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialaren arabera, SPKLren 122.2 artikuluaren ondorioetarako.

12.2.2.2- Beste batzuk: bai (ikus 12.1.6.3 eta 12.1.6.4 puntuak).

13.- ZIGORRAK

13.1.- Baldintza orokorren 31.1 klausulan aurreikusitakoez bestelako zigorrak ezartzen dira: bai, ikusi hurrengo puntua.

Hurrengo betetze akastunengatik eta ez-betetzeengatik zigorrak ezarri ahal izango dira:

- **Ez-betetzea eta zenbatekoa**
  - **Saioak ez betetzea:** Kontratistari egotz dakiokeen erruz edo arrazoiren batengatik aldez aurretik hitzartutako saio bat (1) egiten ez bada, nahiz eta geroago egin, esleipenaren prezio unitarioaren % 5,00ko zigorra ezarri ahal izango da (BEZik gabe). Ondoren egiten ez bada, edozein arrazoi dela medio, emandako hurrengo saioko esleipen-prezio unitarioaren % 5,00ko zigorra ezarri ahal izango da (BEZ kanpo), eta ondorengo ez-betetzeekin metatu ahal izango da. Bigarren saioa kontratistari egotz dakiokeen erruz edo arrazoiren batengatik egiten ez bada, esleipenaren prezio unitarioaren % 5,00ko beste zigor bat ezarri ahal izango da (BEZ kanpo), lehen ez-betetzearen kasuan bezala. Saioren bat hirugarren aldiz betetzen ez bada, Administrazioak aukera izango du (i) kontratua deuseztatzeko eta kontratista Administrazio honekin kontratatzeko debeku deklaratzeko izapideak hasteko, ez-betetzearen ondorengo bi (2) urteetan; edo (ii) ez-betetze bakoitzeko zigorrak ezartzen jarraitzeko, guztiak metagarriak izanik.
  - **Saioak euskaraz ez egitea**: Euskara zerbitzua emateko hizkuntza gisa ez betetzeagatik, behar bezala ez betetzeagatik edota gaizki betetzeagatik (Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako hizkuntza, 2.5 eta 7.8 puntuetan, besteak beste): saio bakoitzeko esleipenaren prezio unitarioaren %25,00 (BEZik gabe). Egoera hori bi (2) aldiz errepikatuko balitz, Administrazioak kontratua suntsiarazi ahal izango du eta behar diren tramiteak hasi ahal izango ditu kontratistari Administrazio honekin kontratatzeko debekua adierazteko, ez-betetzea gertatu eta hurrengo bi (2) urteetan.
- **Behar bezala administratzeko arauak:**
  - Aurreko zigorrak esleipendunak eman beharreko zerbitzuari dagozkio.
  - Zigor jakin batzuek epe bat eta jarraibide batzuk izan ditzakete behar bezala zuzentzeko.
  - Ezarri beharreko zigorra benetan zehazteko, kontuan hartuko dira, besteak beste, gertatutakoaren tamaina edo garrantzia, kontratistak aplikatutako arreta eta zerbitzuan eta pertsonengan izan duen eragina.
- **Prozedura aplikagarria:** ikusi baldintza orokorren 31.2 puntua.

Kontratuko funtsezko betebeharretako edozein ez betetzea arau-hauste larria da SPKLren 71.2 c) artikuluaren ondorioetarako. Enpresaburuan dolua, errua edo zabarkeria baldin badago, eta zigorrak edo kalte-galeren ordaina ekarri badu, enpresaburua sektore publikoarekin gehienez ere 3 urtez kontratatzeko debekua duela deklaratu ahal izango da, SPKLren 71. eta 72. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

13.2.- Artikuluan xedatutakoez bestelako zigor-zenbatekoak ezartzen dira. 193.3 eta 193.4 SPKL, epeak betetzen berandutzeagatik: ikus aurreko puntua.

14.- AZPIKONTRATAZIOA

14.1.- Mugak ipini zaizkio azpikontratatzeko aukerari: ez

14.2.- Operadore ekonomikoek honako informazio eta/edo dokumentazio hau emateko daukaten betebeharra: -

☒ **a)** Azpikontratatzea aurreikusten duten prestazioaren zati bat. Baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan adierazten diren datuak aurkeztu behar dituzte.

☐ **b)** Azpikontratatzea aurreikusten den azpikontratista bakoitzaren EKAB agiria (II. eta III. zatietako A eta B atalak behar bezala beteta).

☒ **c)** Kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura, VI.2 eranskinean adierazi beharko da zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duen, bai eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere (azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzei erreferentzia eginez definituta).

15.- ZERBITZUA EMAN IZANA EGIAZTATZEA, HARRERA ETA BERME-EPEA

15.1.- Prestazioa behar bezala eman dela egiaztatzeko modua: kontratuaren arduradunaren egiaztapen-txostena.

15.2.- Prestazioen harrera egiteko epea: hilabete bat (1) prestazioa amaitzen denetik.

15.3.- Harrera partzialak daude: Ez

15.4.- Berme-epea: Hilabete bat (1), harrera-akta sinatzen denetik.

Lan guztiak amaituta, kontrako txostenik ez badago, esleitutako kontratuaren barruan emandako azken ikasturteko azken harrera-akta sinatu ondoren, eta behin nahitaez entregatu beharreko dokumentazioa jasota, dagokion bermea bueltatuko da, Baldintza Teknikoen Agiriaren (PTP) I. eranskinari buruzko 6.1 puntuan eta 7.36 puntuan (azken memoriari buruzkoa) jasotzen den bezala.

16.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatzeko aukera: bai, unitate-prezioaren araberako segidako traktuko kontratua denez, eta prestazio-unitateen guztizko kopurua zehaztasunez zehaztu denez, honako aldaketa hau aurreikusten da, jarraian zehazten diren inguruabarren, irismenaren, mugen, izaeraren eta prozeduraren arabera:

a) Egoera: COVID-19ren ondoriozko egungo osasun-krisiaren ondorioz, saioak ezin badira aurrez aurre eman, saio telematiko bihurtu ahal izango dira, aurrez grabatuta edo "Streaming" moduan, gainerako ezaugarriak (edukia, ezaugarriak...) aldatu gabe utziz.

b) Baldintzak objektiboki egiaztatzeko metodoa: kontratuaren arduradunaren txostena.

c) Irismena, mugak eta izaera: saioak telematikoki edo "streaming" bidez egiteak musikarien lekualdatzeak saioak ematen diren lekuraino kentzea ekarriko duenez, aldaketa hasierako aurrekontua murriztean datza (zehazki, saioak ematen dituzten musikarien bidaia-gastuei dagokienez).

d) Gehienez ere eragina izan dezakeen kontratu-prezioaren ehunekoa: aldaketak kontratuaren prezioa %5 jaistea ekarriko du, bidaia-gastuak deskontatzean,izan ere, saio telematikoen edo "streaming" en kasuan ez dira gastu horiek gertatuko. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea betez, aurreikusitako aldaketak ez du ekarriko, inola ere, kontratuaren hasierako prezioa %20 baino gehiago aldatzea (SPKLren 204. artikulua).

a) Prozedura: baldintza orokorren 33.2.1 klausulako a) letran ezarritakoa.

Aldaketak ez du ekarriko kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea. Aurrez aurreko saioak telematiko edo "streaming" bihurtuz gero, kontratua arautuko duten unitate-prezioak esleipenaren unitate-prezioa % 5 murrizteari dagozkionak izango dira, eta gehienez ere lizitazioaren oinarrizko aurrekontua agortu arte iritsi ahal izango dira (baldintza espezifiko hauen 3.1 klausula, 4. klausulari dagokionez), baldin eta egiaztatzen bada Sailaren beharrak aurreikusitakoak baino handiagoak direla (Baldintza hauen 1.5 klausulan xedatutakoaren arabera).

Kontratua aldatzeko aukera, aldaketa izapidetu beharrik gabe: era berean, gauzatu beharreko unitateen kopurua kontratuaren prezioaren ehuneko hamarrera (% 10) igotzeko aukera ezartzen da, dagokion aldaketa-espedientea izapidetu beharrik gabe (SPKLren 309.1 artikuluaren 2. Paragrafoan ezartzen denaren arabera).

17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Beste suntsiarazpen-arrazoi batzuk ezartzen dira, baldintza orokorren 38. klausulan ezarrita daudenen osagarri: bai, honako hauek:

- Gizarte- eta lan-arloko araudia eta klausulak ez betetzea.
- Azpikontratazioaren arloko araudia eta klausulak ez betetzea.
- Kontratuaren berariazko klausula hauen 13. puntuan ezarritako arrazoiak.

18.-KONTRATUAREN OBJEKTU DEN PRESTAZIOARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

18.1.- Kontratistak **lan-programa** aurkezteko daukan betebeharra, baldintza orokorren 25.2 klausulak ezartzen duenez: ez

18.2.- Kontratuak berekin dakar datu pertsonalak tratatzea edo eskuratzea: ez.

Datu pertsonalak tratatzea edo eskuratzea badakar, baldintza orokorren 29. klausulan ezarritakoa aplikatuko da.

18.3- Prestazioaren zati batzuk edo lan zehatz batzuk kontratistak berak egin ditzala eskatzen da, SPKLren 75.4 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera: ez

18.4- Beste batzuk: Zerbitzua etetea

a) Zerbitzua etetea, alderdietako bati egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik:

Fenomeno atmosferikoek, naturalek, hondamendiek, enpresa kontratistarekin zerikusirik ez duen greba-deialdiek edo zerbitzua egitea eragozten duten beste inguruabar batzuek zerbitzua egitea eragozten badute, kontratistak zerbitzuaren zenbatekoaren %80 jasoko du, baldin eta agiri honetan aurreikusitako aldaketari dagokion atalean ezarritakoaren arabera aldatu ezin bada (baldintza berezi hauetako 16 klausula), eta, betiere, saioa beste data batean egin ezin bada ikasturte barruan, Hezkuntza Sailaren, ikastetxeko zuzendaritzaren edo kontratuaren arduradunaren azken erabakia izanik.

b) Hezkuntza Sailari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik zerbitzua etetea:

Hezkuntza Sailak edo Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakitzen badu zerbitzua osorik edo zati batean etetea, zerbitzua esleitu zaion enpresari jakinaraziko zaio, idatziz, faxez edo posta elektronikoz.

Aurreabisua bost (5) egun lehenago egin ez bada, kontratistak egindako saioen zenbatekoaren %100 jasoko du, eta eta aurreabisua betez gero, %80.

Kontratistak egindako saioen zenbatekoaren% 100 jasoko du, eta egin gabekoen% 80, esleipen prezioaren proportzionaltasunari eutsiz.

c) Kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua etetea:

Kontratistak aurreikusten badu zerbitzua kontratuan ezarritako baldintzetan ematea ezinezkoa dela, horren berri eman beharko dio ikastetxeko zuzendaritzari, idatziz, faxez edo posta elektronikoz; kasu horretan, enpresak ez du ordainsaririk jasoko, baldintza-agiri honetako klausula espezifikoen 13. puntuan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

II.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURAREN EZAUGARRIAK

19.-ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ETA ERREGISTROAK

19.1.- Botere adjudikatzailea: Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

19.2.- Organoen identifikazioa.

19.2.1.- Kontratazio-organoa: Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza.

19.2.2.- Organo hartzailea: Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza
DIR3 kodea: A16007373

19.2.3.-Kontratuaren arduraduna: Euskara Zerbitzuko Burua

19.2.4.- Kontabilitate publikoaren arloko organo eskuduna: Kontrol Ekonomikorako Bulegoa.

19.2.5.- Kontratazio-zentrala. Kontratua adjudikatzen duen organoak beste entitate batentzat egiten du lan: Ez

19.2.6.- Kontratazio-mahaiaren osaera:

Mahaiburutza:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Mikel Tolosa	Ricardo Crespo
	Oihana Amundarain
	Aitor Iriarte
	Daniel Hernandez

Hezkuntza saileko bokalak:

Titularra:	Ordezkoa:
Isabel Ruiz	Almudena Landera

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria: ezartzeko zain.

Idazkaria:

Titularra:	Ordezkoa(k):
Jone Septien	Garazi Anda
	Ana Atela
	Asier González
	Alazne Picaza

19.2.7.- Aditu-batzordea/erakunde tekniko espezializatua: Ez

19.3.- Adjudikazio-prozedura izapidetzeaz arduratzen den administrazio-unitatea: Kontratazio Arloa, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

19.4.- Alderdi teknikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- Helbide elektronikoa: huisb100@euskadi.eus / huisb130@euskadi.eus
- Telefono-zenbakiak: 944031184 / 944031109

19.5.- Alderdi juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua:

- Helbide elektronikoa: j-septien@euskadi.eus

- Telefono-zenbakia: 945018253

19.6.- Erregistroak:

19.6.1.- Eskaintzak aurkezteko erregistroa: Kontratazio Elektronikoko Erregistro Telematikoa (ikusi baldintza orokorren 12.2.1 klausula).

19.6.2.- Ziurtagiriak eta fakturak aurkezteko erregistroa: fakturen kontabilitate-erregistroa

http://www.euskadi.eus/fakturazio-elektronikoaren-zerbitzua/web01-s2oga/eu/

20.-IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

20.1.- Erregulazio harmonizatuko kontratua: Ez, SPKLren 22. artikuluko c) letran xedatuta dagoenaren arabera.

20.2.- Izapidetzea: Arrunta

20.3.- Prozedura: irekia.

20.4.- Sortatan banatzeari buruzko informazioa: ez dagokio

20.5.- Izapideak egiteko bitartekoak: elektronikoak.

Izapidetze elektronikoan gorabeherarik izanez gero, 945016298 telefonora deitu ahal da.

20.6.- Enkante elektronikoa: Ez

20.7.-Gizarte-ekimeneko Enplegu Zentro Berezietarako eta gizarteratze-enpresetarako erreserbatutako kontratua, edo enplegu babestuko programen barruan dagoena: Ez

20.8.- Gizarte, kultur edo osasun arloko zerbitzu-kontratua izateagatik erakunde jakin batzuetarako erreserbatutako kontratua, SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera: Ez

---

21.- KAUDIMENA, SAILKAPENA, GAIKUNTZA, ETA BALIABIDEAK ADSKRIBATZEA

21.1.- Kaudimeneko gutxieneko betekizun batzuk edukitzeko betebeharra: Bai, Kontratuko klausula espezifikoetako 21.2 klausularen arabera.

21.2.- Kaudimena: operadore ekonomikoek kaudimen hau izan behar dute:

- **Ekonomiko eta finantzarioa. Betekizunak:**

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan beharko dituzte erakunde guztiek.
- Urteko negozio-bolumena 6.000 eurotik gorakoa dela egiaztatu beharko da. Zenbateko hori amaitutako azken hiru (3) negozio-bolumen handieneko urtean lortu beharko da.

- **Tekniko edo profesionala. Betekizuna:**

  - Azken hiru (3) urteetan kontratuaren xedearen izaera bereko edo antzeko lanak egin izana egiaztatu beharko da, baldin eta lan horien urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean 6.000 eurokoa edo gehiagokoa bada.

Operadore ekonomiko sortu berrien kasuan (5 urtetik beherako antzinatasuna), kaudimen tekniko edo profesional hau izan beharko dute:

Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, 5 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duenean, ezin izango da aurretik ezarritakoa aplikatu. Kontratua gauzatzeko dauden langile teknikoak edo unitate teknikoak, enpresan integratuta egon ala ez, soilik adierazi beharko dira, batez ere kalitate-kontrolaren arduradunak.

Baldintza orokorren 11.4 klausulako bigarren lerroaldean xedatutakoari kalterik egin gabe, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik egiaztatu beharko ditu kaudimen baldintza horiek, kontratuaren klausula berezien 25.1 klausulan adierazitako agirien bidez.

21.3.- Sailkapena: Ez da behar

21.4.-Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: Ez

21.5.- Prestazioa emateko ardura duten langileen izenak eta prestakuntza profesionalak jakinarazi beharko dituzte pertsona juridikoek: Bai, kontratua gauzatu aurretik beti.

21.6.- Baliabideak nahitaez adskribatzea: Bai, **II.2 ERANSKINEKO "Baliabideak adskribatzeko konpromisoa" koadroaren arabera.** Eskaintzarik onena egin duelako esleipendun suertatzen den lizitatzaileak kontratu honi dagozkion prestazio eta zeregin guztiak egiteko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu, baldintza-agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak soilik egiaztatu beharko du baliabide horiek benetan eskura dituela; horretarako, kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Kontratistak Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Euskara Unitateari eman beharko dio, kontratuaren xedea osatzen duten saioak egin baino lehen, II.2 Bis ERANSKINA, behar bezala beteta, saio horiek emango dituzten musikarien nortasuna botere esleitzaileari ezagutarazteko, ziurtagiriak eskuratu ahal izateko.

22.-ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

22.1.- Adjudikazio-irizpide bakarra dago: Ez

22.2.- Adjudikazio-irizpide asko daude: Bai

22.2.1.- Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak: Ez

22.2.2.- Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak:

- **1. irizpidea: Eskaintza ekonomikoa 49 puntu (%49)**

Haztapena: 49
Formula:

49 puntu emango zaio eskaintzarik baxuenari, eta beste eskaintzei proportzionalki dagokien puntuazioa emango zaie ondorengo formularen arabera:

$$P = \frac{49 \times (L - \text{Ebaluatuko den eskaintza})}{(L - \text{Eskaintzarik ekonomikoena})}$$

P -. Lizitatzaileak lortutako Puntuazioa

L-. Lizitaziorako Oinarrizko Aurrekontua

- **2. irizpidea: Proposamen didaktikoa 26 puntu (%26)**

Haztapena: 26

26 puntu emango dira enpresak lan proposamen didaktikoa aurkezten badu. Proposamen didaktiko hori berdina izango da saio guztietarako eta saio guztien aurretik egingo da. Helburua izan behar du ikasleek musika-tradizioaren azterketa euskaraz egin ahal izatea, entzun behar duten musikaria testuinguru eta tradizio baten barruan kokatu ahal izateko. Proposamen didaktikoak honako hauek bildu behar ditu: alde batetik, euskal abestiaren historia garaikideari buruzko informazio-materiala,

eta, bestetik, irakasleak saioaren eguna izan baino lehen eduki horiek ikasgelan landu ahal izateko ariketak.

3. irizpidea: Aplikazio informatikoa 25 puntu (%25)

Haztapena: 25

Enpresak eskabideak kudeatzeko eta ikastetxeekin komunikatzeko aukera ematen duen aplikazio informatikorik badu, 15 puntu emango zaizkio. Aplikazio horrek programan parte hartu nahi duten ikastetxeen eskaerak jasotzeko aukera eman beharko du, eta Hezkuntza Departamentuko programaren kudeaketaz arduratzen diren langileen eskura egon beharko du.

5 puntu gehiago emango dira aplikazio horrek programan parte hartzen duten musikariei buruzko informazioa ematen badie ikastetxeei, eta beste 5 puntu, aurreko puntuko proposamen didaktikoa laguntzen duten bideo eta testu formatuko edukiak baditu.

22.3.- Eskaintza anormalki baxuegiak: honako parametro edo muga hauek ezarri dira horiek hautemateko:

22.3.1.-Prezioaren aldetik: ez dagokio.

22.3.2.-Eskaintza osoaren aldetik: bai, honako hauek:

Anormala dela jotzeko aukera ematen duten parametro objektiboak: esleipen-irizpide bat baino gehiago izanik, hauek izango dira kontuan hartu beharreko parametro objektiboak, prozeduran parte hartu duten eskaintza baliodunen kopuruaren arabera:

1.- Lizitatzaile bakarra aurkezten bada, joko da eskaintza anormalki baxuegia egin dela ondorengo bi baldintzak betetzen direnean:

a) egindako eskaintza ekonomikoa lizitaziorako oinarrizko aurrekontua baino %25 (ala gehiago) baxuago izatea eta,

b) beste esleipen-irizpideetan dagokion puntuazioa irizpide horietarako pleguetan jasotako gehienezko puntuazioaren %90etik gorakoa izatea.

2.- Bi lizitatzaile (2) edo gehiago aurkezten badira, honako parametro edo muga hauek ezartzen dira aintzat hartzeko. Bi irizpide hartuko dira kontuan:

- Prezioa ez den beste balorazio irizpideetan lortutako puntuazioa, eskaintzak bi mailatan multzokatuta. Ondoko taulan zehazten dira.
- Eskainitako prezioa eta, zehazki, lizitatzaile guztiek eskainitako proposamen ekonomikoen batez bestekoarekiko beheranzko desbiderapena.

Horrela, ehuneko jakin batean batez bestekoa baino txikiagoa den proposamen ekonomikoa jasotzen duen eskaintza anormaltzat joko da. Proposamenaren izaera anormala hautemateko aplikatu beharreko murrizketa-portzentajea prezioaren irizpide desberdinetan lortutako puntuazioaren araberakoa da.

Maila (prezioaz bestelako irizpideetan lortutako guztizko puntuazioa)	**Eskainitako prezioa batez bestekoarekiko gehien murriztea**
Eskaintza ekonomikoaz bestelako irizpideetan puntu edo gehiago eta 26 puntu edo gutxiago lortz duten enpresak.	**%20**
Eskaintza ekonomikoaz bestelako irizpideetan puntu baino gehiago eta 51 puntu edo gutxia lortzen dituzten enpresak.	**%25**

23.-BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

Baldintza orokorretako 19. Klausulan jasotzen diren irizpideak aplikatuko dira.

24.-GUTUN-AZAL BAKOITZEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Prozeduran parte hartzeko eskatzen diren dokumentuak jarraian adierazten diren fitxategi elektronikoen edo gutun-azalen barruan aurkeztuko dira.

24.1.- A gutun-azala: AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK.

Baldintza orokorren 13.1 klausulan azaltzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira gutun-azal horretan.

- **Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB),** behar bezala beteta. EKAB agiriaren IV. atalari dagokionez, operadore ekonomikoak α **atala** bakarrik bete beharko du.
    - Hainbat operadore ekonomikok ABEE batean elkartuta parte hartu nahi dutenean, aparteko EKAB agiri bat aurkeztu beharko da parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko, bertan azalduta II – IVra bitarteko ataletan eskatzen den informazioa.
    - EKAB dokumentua formatu elektronikoan eta Word formatuan eskura daiteke (II.1 eranskina), kontratatzailearen profilean. Xml luzapeneko formatu elektronikoa erabiltzea gomendatzen da.

-Lizitatzaileek komenigarritzat jotzen badute, **II.O ERANSKINA** aurkeztu ahal izango dute. Lizitatzaileek eranskin hau aurkezten badute, behar bezala bete beharko dituzte operadore ekonomikoaren ordezkariari edo ordezkariei buruzko datuak (izen-deiturak eta NAN), bai eta haren IFZ ere. Ondorioz, datu horiek eranskin honetan aurkezten badira, ez da beharrezkoa datu horiek lizitatzaileak/lizitatzaileek lizitazio honetan parte hartzeko aurkeztu behar dituen gainerako eranskinetan ematea. Hala ere, II.O eranskina behar bezala beteta aurkezteak ez du esan nahi datu horiek EKAB agirian aurkeztu behar ez direnik. Beraz, EKAB agirian, operadore ekonomikoaren ordezkariari edo ordezkariei buruzko datuak eman behar dituzte lizitatzaileek, baita haren IFZ ere, II.0 eranskin hau beteta aurkeztu arren.

-**II.2. ERANSKIN**eko ereduaren araberako baliabideak adskribatzeko konpromisoa.

- Lizitatzaileek egokitzat jotzen badute, operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea, **II.3 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

-Bi operadore ekonomikok edo gehiagok ABEE batean elkarrekin parte hartu nahi badute lizitazioan, **II.4. ERANSKIN**eko ereduaren araberako Formalki ABEEa eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute.

-Kontratuak xedetzat duen jarduera egiteaz arduratuko diren langileei begira operadore ekonomikoak hartzen duen konpromisoaren adierazpena, **II.5. ERANSKIN**ean jasotako ereduaren arabera egina.

-Merkataritzako Kodearen 42.1. artikuluaren arabera enpresa talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikok eskaintza aurkezten badute, **II.6. ERANSKINA** bete beharko da.

-Kontratuak sortak baldin baditu, **II.7. ERANSKINA** bete beharko da, eskaintza zer sortatara (bat edo batzuk) aurkezten den zehazteko.

-Europako Erkidegoko operadore ekonomikoek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuek, eta kontratua Espainian gauzatuko bada, Espainiako edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende daudela dioen adierazpena erantsi behar dute, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen

gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin behar diote.
-Europar Batasunetik kanpoko eragile ekonomikoak badira, SPKLren 68.1 artikuluan araututako txostena aurkeztu behar dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatu behar bada, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko diote.

24.2.- B GUTUN-AZALA: FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZA.

Dokumentu hau(ek) aurkeztu beharko d(ir)a gutun-azal horretan:

- **III.1 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa.

24.3.- C GUTUN-AZALA: BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA EBALUATU BEHAR DEN ESKAINTZA: ez

24.4.- Aldaerak onartzen dira: Ez

25.-ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK

Baldintza orokorren 21.1 klausulan azaldutako gainerako dokumentuekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira, hala badagokio:

25.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan jasotako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta kaudimen tekniko edo profesionaleko betekizunak egiaztatzeko dokumentuak: Bai, honako hauek:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

Negozio-bolumen globalari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratu honen objektuari dagozkion jardueretako negozio-bolumenari buruzkoa, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldietakoa, enpresariaren jarduerak sortu edo hasi ziren dataren arabera eta aipatutako negozio-bolumenaren erreferentziak dauden neurrian.

- **Kaudimen tekniko edo profesionala:**

Azken hiru (3) urteotan kontratuaren edukien antzeko egindako lanik nabarmenenak edo emandako zerbitzurik aipagarrienak, zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaileak, publiko zein pribatuak, jasotzen dituen zerrenda. Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, berorrek luzatutako ziurtagiriaren bitartez eta, halakorik ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazioa eman izana egiaztatzen duten eskura dituen dokumentuekin batera (fakutrak, ordainketa ziurtagiriak, eta abar).

Operadore ekonomiko sortu berrien kasuan (bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna), kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatu ahal izango du, kontratua gauzatzeko eskura dituen langile teknikoen edo unitate teknikoen zerrendarekin, enpresan integratuta egon ala ez, batez ere kalitate-kontrolaz arduratzen direnekin. Zerrenda horretan teknikarien titulazio akademikoa jasoko da, bai eta enpresak ikerketa-arloan izan duen ibilbidea ere, aukeratu diren loteen jardun-eremuan.

25.2.-Kontratuaren klausula espezifikoen 21.6 klausulan eskatutako baliabide materialak eta giza baliabideak erabilgarri daudela egiaztatzeko dokumentazioa: Enpresa esleipendunak kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide material eta pertsonal guztiak izan beharko ditu.

(*) Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak, gaitasun eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak egiaztatzen ez baditu (hala dagokionean, kontratuaren klausula espezifiko hauen 21. puntuan ezarritakoaren arabera) **lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 (BEZa kanpo)**

eskatu ahal izango zaio, zigor gisa. Zenbateko hori benetan ezartzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak kontuan hartuko ditu, besteak beste, kontratistak aplikatutako eginbidea eta/edo kontratistaren fede txarra, bai eta Administrazioari eragin ahal izan dion kaltea ere. Nolanahi ere, zenbateko hori ezarriko da lizitatzaileak errekerimenduari erabat uko egiten badio eta/edo bere borondatez uko egiten badio.

26.-PROZEDURARI BURUZKO KLAUSULA GEHIGARRIAK

26.1.-Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria:

26.1.1.- Eskatzeko azken eguna: Proposamenak aurkezteko epea igaro baino 12 egun lehenago.

26.1.2.- Eskuratzeko azken eguna: Eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 6 egun lehenago.

26.1.3.- Baldintza-agiriei edo gainerako dokumentuei buruzko argibideen izaera loteslea: Bai

26.2.- Konpentsazio-modu espezifiko bat aurreikusi da kontratuari uko egiten zaionerako eta botere adjudikatzaileak prozeduran atzera egiten duenerako: Ez

26.3.- Kontratua adjudikatzeko gehieneko epea SPKLren 158.2 artikuluan ezarritakoaz bestelakoa da: Ez

26.4.- Baldintza orokorren 23.1 klausulan azaldutakoa osatzeko dokumentazioa (kontratua formalizatu baino lehen aurkeztu behar da): aurretik adierazi diren baliabide pertsonal eta materialak adskribatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa kontratua bete ahal izateko.

Horrez gain, Haurrak eta Nerabeak indarkeriaren aurrean integralki babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa betez, enpresa esleipendunak Sexu Delitugileen eta Gizakien salerosketaren Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko du, Baldintza Teknikoen Agiriaren 6.4 puntuan ezarritakoarekin bat etorriz (betiere, saio bakoitza egin baino lehen, eta Hezkuntza Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Euskara Unitatean aurkeztu beharko da).

Aurrekoa gorabehera, aipatutako ziurtagiria kontratuaren klausula espezifiko hauen 11.1.3.1 puntuan adierazitako moduan ordeztu ahal izango da, II.2.bis Eranskina aurkeztuz.

III.- BESTE ZEHAZTAPEN BATZUK

27.-KONTRATUA LAGATZEA.
Kontratua lagatzeko beste kasu batzuk aurreikusten dira, baldintza orokorren 35.1.1 klausulan aurreikusten direnez bestelakoak: ez

28.-GIZARTEKO, INGURUMENEKO ETA PROZEDURAN ETA KONTRATUAN SARTUTAKO BESTE POLITIKA PUBLIKO BATZUEN INGURUKO ALDERDIEN JARRAIPENA EGITEKO KOADROA

Alderdiak:	**GIZARTEKOAK EDO ENPLEGUARI BURUZKOAK**				**INGURUMENARI BURUZKOAK**	**HIZKUNTZARI BURUZKOAK**
	BEREZIKI			BESTE BATZUK		
	Laneratzea	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	Lan-arriskuen prebentzioa			
Kontratuaren objektua						
Kaudimen-betekizunak						
Zehaztapen teknikoak						
Adjudikazio-irizpideak						
Kontratua betearazteko baldintza bereziak		Bai		Bai		Bai

BALDINTZA OROKORRAK

I.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA ALDERDI OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren objektua kontratuaren klausula espezifikoen 1. klausulan adierazita dago, eta preskripzio tekniko partikularren agirian definituta.

Objektua sortatan zatiturik badago, kontratuaren klausula espezifikoen 1.2.2 klausulan egongo da adierazita sorta bakoitzaren objektua, eta preskripzio tekniko partikularren agirian definituta.

Prestazioa kokatzen den CPV kontratuaren klausula espezifikoen 1.3 klausulan adierazten da.

Segidako traktuko kontratua bada eta ez bada zehatz definitu zenbat prestazio-unitatek osatzen duten objektua, botere adjudikatzaileak eskatutako prestazio-unitateak egin beharko ditu kontratistak.

2.- KONTRATU-DOKUMENTUAK

Honako hauek izango dira kontratu-dokumentuak:

a) Administrazio-klausula partikularren agiria.
b) Preskripzio tekniko partikularren agiria.
c) Kontratua formalizatzeko dokumentua.
d) Lan-programa, kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala azaltzen denean.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

3.1.- Kontratua **administrazio izaerakoa** da, eta ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoa izan beharko da.

3.2.- Kontratu-dokumentuetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako arau hauek bete beharko ditu kontratuak:

a) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).

b) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

c) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

d) 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa, SPKLn ezarritakoaren kontra ez doan heinean.

e) Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketen izapidetze telematikoari buruzkoa.

f) 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

g) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

h) Europako Batasunean, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten eta aplikagarri zaizkion gainerako xedapenak.

Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3.- Aldeek beren-beregi bete beharko dute kontratu-dokumentuetan ezarrita dagoena. Dokumentu horietan ezarrita zer dagoen ez jakiteak ez du kontratista salbuetsiko ezarrita dagoen hori betetzeko beharretik, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztiak, inolako salbuespen edo eragozpenik gabe.

4.- HAINBAT ARLOTAKO INFORMAZIOA: ZERGAK, INGURUMENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ENPLEGUAREN BABESA, LANEKO BALDINTZAK, LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA, DESGAITASUNA DAUKATEN PERTSONEN KOPURU EDO EHUNEKO ZEHATZ BAT KONTRATATZEKO BETEBEHARRA ETA DATUEN BABESA

Erakunde hauetan dago gai hauen inguruko betebeharrei eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa:

4.1.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.

4.2.- Fiskalitatea: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.

4.3.- Ingurumena babestea: IHOBE Sozietate Publikoa.

4.4.- Enplegua babestea, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

4.5.- Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE erakunde autonomoa.

4.6.- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA, AURRETIKO IZAPIDETZEA ETA BALIO ZENBATETSIA

5.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kontratuaren klausula espezifikoen 3.1 klausulan agertzen da, eta urteka eta sortaka dago banatuta, hala badagokio, klausula horretan ezarritakoaren arabera.

5.2.-Kontratuaren klausula espezifikoen 3.2 klausulan adierazitako aurrekontu-aplikazioan behar besteko **kreditua** dago kontratuak eragindako betebeharrei erantzuteko.

5.3.-Espedienteak **aurretiko izapidetzea** behar badu kontratuaren klausula espezifikoen 3.3 klausularen arabera, kontratua adjudikatu ahal izateko, kreditu egoki eta nahikoa egon behar da dagokion ekitaldi ekonomikoan.

5.4.- Balio zenbatetsia kontratuaren klausula espezifikoen 4. klausulan agertzen da.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA ETA GEHIENEKO AURREKONTU MUGATZAILEA

6.1. Kontratuaren prezioa honenbesteko prezioaren araberakoa denean: honenbesteko prezioa duten kontratuetan, adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, baina inola ere ezin izango da izan kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan agertzen den lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe) baino handiagoa.

6.2.- **Kontratuaren prezioa unitate-prezioen araberakoa denean**: prestazioan eskainiko diren osagaiei, egikaritze- edo prestazio-unitateei edo denbora-unitateei dagozkien unitate-prezioaren araberako kontratuetan, honi jarraituko zaio:

a) Argi zehaztu bada zenbat unitatek osatzen duten objektua, hauxe izango da prezioa: enpresa adjudikaziodunak eskainitako unitate-prezioa bider unitate kopurua.

b) Ez bada zehatz definitu zenbat unitatek osatzen duten xedea:

1. Adjudikaziodunak eskainitakoa izango da unitate bakoitzaren prezioa.
2. Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da. Aurrekontu hori lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren berdina izan daiteke, edo, baldin eta adjudikaziodunak ez badu unitateko lizitazio-prezioen murrizketarik eskaini, kontratazio-organoak zehaztuko duen proportzioan murriztu ahal izango da.

Kasu horretan, aurrekontuaren benetako gastua botere adjudikatzailearen egiazko beharrizanen araberakoa izango da, ez baitago behartuta unitate kopuru zehatz bat eskatzera, ez eta aurrekontu osoa gastatzera ere.

6.3.- Prezioa zehazteko bi sistemak (honenbesteko prezioa nahiz unitate-prezioak) erabiltzen badira prestazioaren zati diferenteetarako, kontratuaren klausula espezifikoen 5.1 klausulan eta baldintza orokorren 6.1 eta 6.2 klausuletan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

6.4.- Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea adjudikazio-ebazpenean zehaztuko da, BEZa partida independente gisa aipaturik, eta, behar izanez gero, urte anitzeko banaketa ere.

6.5.- Kontratuaren prezioan edo prezioetan, zerga, tasa eta kanon aplikagarri guztiak sartuta daude, bai eta kontratuaren baldintzak betetzeak dakarren beste edozein gastu ere.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak berrikusi daitezke baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 5.4 klausulan hala jasota badago, eta klausula horretan azaltzen den formula aplikatu beharko da.

8.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: KONTRATUAREN BETEARAZPEN-EPEA EDO IRAUPENA. LUZAPENA

8.1.- Traktu bakarreko kontratuak:

Kontratuaren betearazpen-epea kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan azaldutako egunean hasiko da, eta honako hau da:

a) Eskaintzek ezin badute epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu: kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 klausulan adierazitakoa.
b) Eskaintzek epe osoa eta/edo epe partzialak laburtzea proposatu badezakete: adjudikaziodunak eskaintzen dituenak.

Epe horiek luzatu daitezke, baina SPKLren 195.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera soil-soilik.

8.2.- Segidako traktuko kontratuak:

Kontratuaren klausula espezifikoen 6.1 eta 6.3 klausuletan adierazita daude, hurrenez hurren, kontratuaren iraupena eta epe partzialak. Kontratuaren klausula espezifikoen 6.2 klausulan agertzen den egunean hasiko da kontratua.

8.3.- Segidako traktuko kontratuen luzapena:

Kontratuaren klausula espezifikoen 6.4 klausulan hala xedatzen denean, kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahal izango du. Hori nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, salbu eta SPKLren 198.6 artikuluan jasotako suntsiarazpen-kausa gertatu bada. Kontratuaren luzapena kontratistarentzat nahitaezkoa izan dadin, kontratuaren arduradunak aurreabisua eman beharko dio kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago, gutxienez.

Luzapena kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta hori erabakitzeko prozedurak jardun hauek hartuko ditu barnean:

a) Kontratua sustatzen duen organoaren txostena, kontratua luzatzeko beharra justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak, prezioa eta epea zehaztuz.
b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.
c) Txosten juridikoa.
d) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, salbuetsita ez dagoenean.
e) Kontratazio-organoaren ebazpena.

9.- BERMEAK

9.1.- Behin-behineko bermea SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako formuletako batean eman ahalko da, eta SPKLren 106.3 artikuluan xedatuta dauden moduetan gordailutu beharko da.

Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua perfekzionatu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei. Hautatutako lizitatzaileari dagokionez, behin betiko bermea eratzen duenean itzuliko zaio behin-behineko bermea, SPKLren 106.4 artikuluan eta baldintza orokorren 23.4 klausulan xedatuta dagoenaren arabera.

9.2.- Behin betiko bermea eta berme osagarria aurreko apartatuan aurreikusitako formulen bitartez eman ahalko dira, baita prezioa atxikita ere, kontratuaren klausula espezifikoen 8.4 klausulan baimenduta badago.

Behin betiko bermea eta berme osagarria Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira beti.

9.3.- Aldi baterako enpresa-elkartea (aurrerantzean ABEE) denean, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko partaide batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, betiere guztira eskatzen den zenbateko osoa lortzen bada, eta kide guztiak badaude batera eta modu solidarioan bermatuta.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA ETA KONTSULTAK

10.1.- Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilera sartzeko, honako esteka hau erabili beharko da: http://www.contratacion.euskadi.eus

10.2.- Honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira kontratatzailearen profilean:

1.- Aurretiazko informazioaren iragarkia, hala badagokio.
2.- Lizitazio-iragarkia
3.- Espedientea onesteko ebazpena.
4.- AKPA, PTPA eta dokumentazio osagarria.
5.- Kontratuaren objektu zehatza, iraupena, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

6.- Honako hauek justifikatzen dituen memoria: kontratazioa egiteko beharrizana, kontratazioaren egokitasun eta efizientzia eta kontratazioak kontratuaren objektuarekin daukan harreman zuzen, argi eta proportzionala.
7.- Baliabide nahikorik ez dagoela dioen txostena.
8.- Espedientea hasteko ebazpena, kontratazio-organoak sinatua.
9.- Merkatuari buruzko aurretiazko kontsultarik egin bada, egin diren kontsultei buruzko txosten arrazoitua, SPKLren 115. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.
10.- EKAB betetzeko xml fitxategia.
11.- Kontratazio-organoari lagundu behar dioten kontratazio-mahaien osaera eta kideen kargua.
12.- Balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko adjudikazio-irizpideak aplikatzeko aditu-batzordeko kideen izendapena, aditu horien esku-hartzea kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulan azaltzen denean. Gainera, kideen kargua adierazi beharko da.
13.- Kontratuaren publizitatea egiteko erabili diren bitartekoak eta argitalpen horietarako estekak.
14.- Hala badagokio, kontratazio-organoaren ebazpena (edo ebazpenak), zeinaren bidez AKPAn eta/edo PTPAn aldaketa esanguratsuak sartzen diren eta epea luzatzearen ondorioz eskaintzak aurkezteko mugaegun berriak ezartzen diren. Dena dela, jardueretan atzera egitea erabaki ahalko da, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluen arabera.
15.- Hala badagokio, kontratazio-organoak AKPA eta/edo PTPA aldatzeari buruz emandako ebazpena (edo ebazpenak), akats materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentze aldera.
16.- Baldintza-agiriei eta/edo gainerako dokumentazioari buruzko argibideak, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.3 klausularen arabera erantzunak lotesleak izan zein lotesleak ez izan.
17.- Adjudikazio-prozeduran parte hartzen duten lizitatzaileen kopurua eta nor diren.
18.- Kontratazio-mahaiaren bilera publikoak egiteko datak eta lekuak eta, hala badagokio, data eta leku horien aldaketak, bai eta hori guztia zein webgunetan ikusi ahal izango den ere, hala egin badaiteke.
19.- Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda, eta, baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoiak.
20.- Kontratazio-mahaiaren aktak.
21.- Eskaintza bakoitzean balio-iritzi batean oinarrituta kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak balioesteko txostena.
22.- SPKLren 149.4 artikuluan aipatzen denaren arabera ustez anormaltasuna duten eskaintzei buruzko txostena edo txostenak, hala badagokio.
23.- Eskaintzei esleitutako puntuazioak, puntuazio horiek aktetan jasotzen ez badira edo aktak idazten eta argitaratzen ez diren arte jasotzen ez badira.
24.- Kontratua adjudikatzeko ebazpena.
25.- Adjudikazioduna nor den.
26.- Adjudikazioaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga barne.
27.- Kontratua formalizatzeari buruzko iragarkia eta kontratu-dokumentua.
28.- Hala badagokio, kontratua egiteari buruzko datu guztiak zergatik argitaratzen ez diren azaltzen duen txostena, SPKLren 154.7 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.
29.- Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzeko.
30.- Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozeduran atzera egitea erabakitzeko.
31.- Kontratazio-organoaren ebazpena, adjudikazio-prozedura hutsik geratu dela deklaratzeko.
32.- Errekurtsorik jarri bada, errekurtso horien ondorioz adjudikazio-prozedura aldi baterako eten daitekeela dioen oharra.
33.- Adjudikazio-prozedura deusez deklaratzeko ebazpena.
34.- Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua luzatzeari buruzkoa.
35.- Kontratua aldatzeari buruzko iragarkiak, kontratazio-organoak kontratua aldatzea erabakitzeari buruz emandako ebazpena, horretarako justifikazioa, kontratistaren alegazioak eta, hala badagokio, onetsi aurretik jaso diren txosten guztiak.
36.- Kontratazio-organoaren ebazpena, kontratua lagatzeko baimena ematen duena.

37.- Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duena.

10.3.- Interesdunek **kontsultak egin ditzakete eta dokumentazio osagarria edo informazio** gehigarria eskatu, kontratuaren klausula espezifikoen 19.4 eta 5 klausuletan agertzen diren helbide elektronikoen bitartez. Idatziz egin beharko da hori, kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.1 klausulan informazioa eskatu ahal izateko ematen den azken egunera arte. Kontratuaren klausula espezifikoen 26.1.2 klausulan azaltzen den mugaegunera arte (hori barne dela) erantzun beharko zaie eskaerei.

II.- LIZITAZIOA

11.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

11.1.- Kontratazio-prozeduran parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko estatu bateko datu-basean inskribatuta dauden pertsona natural edo juridikoek,espainiarrek zein atzerritarrek, betiere azken kasu horretan dohain eskuratzeko modukoa bada eta gaitasun osoa badute. Jardunean ari badira, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimen-baldintzak betetzen badituzte edo, hala badagokio, sailkapena badute,eta kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan ezartzen diren gaikuntzak badituzte (baldin eta klausula horretan adierazi bada "eskaintzak aurkezteko azken egunean" eduki behar direla gaikuntzak).
Salbuespenez, lehia mugatu ez dadin, kontratazio-organoak berariaz baimendu ahal izango du, ebazpen arrazoitu bidez,dagokion erregistroan inskribatuta ez dauden eskaintza lizitatzaileak aurkezteko aukera.

Aurreko paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta ABEE batean elkartu diren pertsonek ere parte hartu ahal izango dute, legez aurreikusitako baldintzen arabera.

Parte hartu ahal izango dute SPKLren 66.1 artikuluan xedatuta dagoena betetzen duten pertsona juridikoek eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek eta, Europar Batasunekoak izan ez arren, SPKLren 67. eta 68.1 artikuluetan xedatuta dagena betetzen duten operadore ekonomikoek.

11.2.- Pertsona bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 24.4 klausulan aldaerak onartzen badira. Bakarrik aurkezten direnek ere ezin izango dute ABEEetan beste proposamenik izenpetu, ez eta ABEE batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

11.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 eta 20.8 klausulen arabera kontratua erreserbatu bazaie, hurrenez hurren, gizarteratzeko Enplegu Zentro Bereziei eta laneratzeko enpresei, edo enplegu babestuko programen barruan sartuta badago, SPKLren laugarren xedapen gehigarrian xedatuta dagoenaren arabera, edo erakunde jakin batzuei erreserbatu bazaie SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, azaldutakoaz gain legez ezarritako betekizunak betetzen dituztenek soilik parte hartu ahal izango dute (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; 44/2007 Legea, abenduaren 13koa, laneratzeko enpresen erregimena arautzen duena; eta SPKLren berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria).

11.4.- Hala badagokio kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan eskatzen den gaitasun, kaudimen eta enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionalari buruzko inguruabarrak (salbu eta klausula horretan adierazi bada gaikuntzak "kontratua formalizatu baino lehen" eduki behar direla) eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta horiek betetzen jarraitu beharko da kontratua perfekzionatzeko unean.

Kontratazio-mahaiak prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango die lizitatzaileei ziurtagiri eta dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, kontratua adjudikatu aurretik, prozeduraren garapenaren mesederako baldin bada. Halaber, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko edo beste dokumentu batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango die kontratazio-mahaiak.

11.5.- Eskaintza aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honen nahiz gainerako kontratu-dokumentuen klausulak, inolako

eragozpen edo erreparorik gabe, eta gainera baimena ematen diela kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari, kontratua adjudikatzeko prozeduraren edozein unetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estaturen baten datu-base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Operadore ekonomikoek ez dute nahitaez aurkeztu behar erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

12.- ESKAINTZAK AURKEZTEA

12.1.- Hizkuntza

Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatzita edo ofizialki itzulita aurkeztu behar dira.

12.2.- Bitartekoak

12.2.1.- Bitarteko elektronikoak: salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulan azaltzen bada kontratua adjudikatzeko prozeduran izapideak egiteko bitartekoak elektronikoak ez direla, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira eskaintzak, LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA izeneko aplikazioaren bitartez. Aplikazio hori KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMAn dago.

12.2.1.1.- Honako hauek dira bitarteko horiek erabiltzeko betekizunak:

1. Administrazio-betekizunak:

a) EAEko Administrazioak izapidetze elektronikoak egiteko baimenduta daukan ziurtagiri digital bat edukitzea. Gaur egun, hauek dira aipatutako ziurtagiri elektronikoak:

- Izenpe (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria)
- FNMT (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria)
- NAN-e
- Camerfirma (Entitatea, Herritarra)

b) Honako egoera hauetako batean egotea:

a. Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria edukitzea.
b. Aldi baterako gaikuntza sisteman alta emanda egotea.
c. Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkartuta lehiatzen badira eta adjudikaziodun izanez gero ABEE bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen badute: ABEEa eratzeko konpromisoak aldi baterako gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar du.

2. Betekizun teknikoak:

Esteka honetan eskuratu daiteke betekizun teknikoei buruzko informazioa:
https://apps.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/eu_02/cambios_configuracion.html

2. Euskarri-zerbitzua, lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko: **945.016.298.**

12.2.1.2.- Aurkezteko modua:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan azaltzen diren dokumentuak erantsi behar dira, klausula horren arabera aplikazioan agertzen diren gutun-azal egokietan.

b) Luzapen hauekin gordetako dokumentuak soilik irakurri eta izapidetuko direla bermatzen da: .doc, .xls, .ppt, .docx, .xlsx, .pptx, .pdf, .rtf, .sxw, .sdw, .abw, .xml, .jpg, .bmp, .tiff, .zip eta .7z.

c) Birusek sistemaren eraginkortasunean eduki dezaketen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, bidali beharreko dokumentuetan .pdf, .rtf, .sxw, .jpg eta .tiff formatuak erabiltzea gomendatzen da.

d) Eskaintza aurkezteko epean jaso dela ulertuko da baldin eta epe horren barruan transmisioa hasi bada eta behar bezala amaitzen bada.

12.2.2.- Elektronikoak ez diren bitartekoak edo paperekoak

12.2.2.1.- Aurkezteko modua:

a) Dokumentuak gutun-azal itxi eta sinatuetan aurkeztuko dira, operadore ekonomikoak edo haren ordezkariak sinatuta. Gutun-azal bakoitzaren barruan, bertan sartu diren dokumentuen aurkibide zenbakiduna sartu beharko da, eta gutun-azal bakoitzaren kanpoaldean honako datu hauek jarriko dira:

1) Gutun-azalaren identifikazioa (A, B, C edo besteren bat), kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

2) Kontratuaren identifikazioa: espediente-zenbakia eta objektua.

3) Lizitatzailearen identifikazioa: pertsona juridikoa bada, bere izen soziala eta IFZ adieraziko dira; pertsona fisikoa bada, izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

4) Eskaintza sinatzen duen pertsona fisikoaren identifikazioa: izen-abizenak eta NANaren edo dokumentu baliokidearen zenbakia.

b) Gutun-azalak lizitazio-iragarkian ezarritako epearen barruan –eguna eta ordua– aurkeztuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.1 klausulan adierazitako erregistroan, edo posta-bulegoren batean, erregistro horietara bidaltzeko.

Dokumentazioa posta-bulegoren batean aurkezten bada, bidali izana jakinarazi beharko du lizitatzaileak; horretarako, mezu elektroniko bat bidali beharko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.5 klausulan agertzen den helbidera, egun horretan bertan. Posta elektroniko bidez egindako jakinarazpen hori baliozkoa izan dadin, jasota geratu beharko da bidali eta jaso izana, noiz bidali den eta noiz jaso den, bai eta zer bidali den (komunikazioaren eduki osoa), nork bidali duen eta nork jaso behar duen. Halakoetan, kopia bat inprimatu behar da. Kopia hori espedienteari erantsiko zaio.

Bidali izanaren jakinarazpenean, kontratuaren eta lizitatzailearen identifikazioa jarri behar da (baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulako a) letran 2) eta 3) apartatuek ezartzen dutenaren arabera). Jakinarazpen horrekin batera, posta-bulegoak emandako frogagiria ere bidaliko da. Lizitazio-iragarkian adierazitako dataren ostean hamar (10) egun natural igaro eta gero dokumentazioa jasotzen ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

12.2.2.2.- Dokumentazioa itzultzea.

Adjudikaziodun izan ez diren eta dokumentazioa berreskuratu nahi duten lizitatzaileek idatziz bidali beharko diote eskaera kontratazio-mahaiko idazkariari –espediente-zenbakia eta dokumentuak jasotzera joango den pertsona fisikoa identifikatuz–, eta administrazio-egoitzetara joan beharko dute dokumentuak jasotzera.

Dokumentuak jasotzera joaten den pertsonaren nortasuna NANarekin edo dokumentu baliokidearekin egiaztatu ondoren egingo da dokumentuen entrega, baldin eta zazpi

(7) hilabete igaro badira kontratua formalizatu zenetik eta ez bada errekurtsorik egon. Epe hori amaitu ostean inork ez badu dokumentazioa jaso hilabeteko (1) epean, suntsitu egingo da.

Era berean, jarduera horiek egingo dira, eta epe berberak aplikatu, prozeduran atzera egiten bada edo kontratuari uko egiten bazaio.

12.3.- Konfidentzialtasuna

Lizitatzaileren batek uste badu aurkeztu duen dokumenturen bat konfidentzialtzat jo behar dela, beren-beregi adierazi beharko du hori –**II.3 ERANSKINA** betez— eta argi eta garbi agerrarazi, gaininprimatuta edo orriaren bazterrean, konfidentzialtzat jo den dokumentuan bertan. Ez bada horrela agerrarazten, dokumentua ez da konfidentzialtzat joko.

II.3 ERANSKIN horretan, sekretu tekniko eta merkataritzakoekin lotuta egoteagatik eskaintzan konfidentzialtzat jotzen diren informazio eta alderdiak azaltzeaz gain, sekretu horiei **zein arrazoi zehatzengatik lotzen zaien** azaldu beharko dute.

Eskaintza ekonomikoa ez da inola ere izango konfidentziala. Eskaintza ekonomikoa konfidentziala dela esan bada, eskaintzarik egin ez dela ondorioztatuko da.

Konfidentzialtasun-deklarazioak ezin du barne hartu lizitatzaileak aurkeztu duen dokumentazio osoa, ezta eskaintza teknikoa egiaztatzeko dokumentazio osoa ere. Kasu horretan, edo deklarazio hori oker dimentsionatzen denean, kontratazio-organoak erabakiko du (arrazoiak adieraziz) zer datuk edo zer dokumentuk izan behar duten konfidentzialak. Gauza bera egingo du kontratazio-organoak baldin eta deklarazioak ez badu arrazoi egoki eta nahikoa oinarridunik lizitatzaileak konfidentzialtzat jotzeko hala deklaratutako informazioa.

Lizitatzaileak ez badu espresuki adierazi datu eta/edo dokumenturen bat konfidentziala denik, datu edo/eta dokumentu bat ere konfidentziala ez dela ondorioztatuko da. Hala ere, salbuespen moduan eta arrazoituta, kontratazio-organoak konfidentzialtzat jo dezake konfidentzial deklaratu ez den informazioren bat, enpresa-interes legitimoak zaintzearren.

Halaber, eskaintzak aurkeztu ostean ezin izango da adierazi datu batzuk konfidentzialak direla, datu horiek aurkeztean adierazi ez bazen.

Hasierako eskaintzaren barruan ez zegoen dokumenturen bat aurkezten bada adjudikazio-prozeduran, konfidentzialtzat jo ahal izango da dokumentazio berri horren artean dagoen datu edo dokumenturen bat, klausula honen aurreko paragrafoetan azaltzen diren baldintzetan.

12.4.- Dokumentazioa egiaztatzea

Adjudikazio-prozeduraren barruan nahiz kontratua adjudikatu eta formalizatu ostean, aurkeztutako dokumentuak benetakoak direla egiaztatu ahal izango du botere adjudikatzaileak. Datuak faltsutzea kontratuaren deuseztasun-kausa izan daiteke. Arrazoi horregatik kontratuaren deuseztasun-deklarazioa eginez gero, operadore ekonomikoari leporatu ahal izango zaio ez-betetzea, eta eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari.

12.5.- Jakinarazpenak eta komunikazioak

12.5.1.-Jakinarazi eta komunikatu behar diren jarduketak.

12.5.1.1.- Adjudikazio-erabakia eta SPKLren 44.2 artikuluan definitutako izapidetze-egintzak jakinarazi beharko dira.

12.5.1.2.- Honako hauek izango dira komunikazioak: argibide-eskariak, akatsak edo omisioak konpontzeko errekerimenduak, baldintza-agiri honetan aurreikusitako dokumentuak aurkezteko errekerimenduak eta SPKLren 44.2 b) artikuluan sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

12.5.2.-Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea.

Lizitazio elektronikoaren sistema erabiliko da jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko.

12.5.3.- Elektronikoak ez diren bitartekoen bidez edo paperean aurkeztea eskaintzak.

Nolanahi ere, bitarteko elektronikoen bidez egingo dira **jakinarazpenak**, EAEko Administrazioaren Egoitza Elektronikoaren bitartez. Esteka honetatik sartuko da egoitza elektroniko horretara: https://euskadi.eus. Operadore ekonomikoek, jakinarazpen eta komunikazioak eskuratzeko, "Tramiteak" fitxako "Nire karpeta (Nire kudeaketak bertsio berria)" esteka erabili beharko dute. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, bidalketa horren abisua jasoko dute operadore ekonomikoek, horretarako eman duten helbide elektronikoan.

Halaber, baldintza orokorren 12.5.1.2 klausulan definitutako **komunikazioak** ere bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, jakinarazpenak egiteko azaldu den modu berean, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoetan bestelako bitartekorik azaldu bada. Kasu horretan, lizitatzaileak posta elektronikoaren bidez erantzun nahi badie eskatu zaizkion argibide edo errekerimenduei, ezinbestekoa izango da argibideak eta deklarazioak biltzen dituzten dokumentuak edo behar bezala sinatuta aurkeztu behar diren gainerako dokumentuak digitalki sinatu ditzala lizitatzailea ordezkatzeko ahalorde nahikoa daukan pertsonak.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako, **II.8 ERANSKINEAN** jasota dagoen deklarazioa aurkeztu beharko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

13.- A GUTUN-AZALA: «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA».

13.1.- Gutun-azal horretan bildu behar diren dokumentuen zerrenda:

13.1.1.-II.0 Eranskina

13.1.2.-Operadore ekonomikoaren Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), behar bezala beteta. Horiek betetzeko, https://visor.registrodelicitadores.gob.es/home helbidea eta kontratatzailearen profilean argitaratutako xml fitxategia erabiliko dira. Halaber, baldintza orokorren 13.3 klausulan jasotako kasuetan bidezkoak diren EKAB agiriak aurkeztuko dira.

13.1.3.-Behin-behineko bermea, kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulak hala eskatzen badu.

13.1.4.-Baliabideak adskribatzeko konpromisoa, **II.2 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.5.-Prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoen 21.5 klausulan hala eskatzen bada.

13.1.6.-Operadore ekonomikoak emandako informazioak konfidentzialtzat jotzea, **II.3 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.7.- Formalki ABEEa eratzeko konpromisoa, **II.4 ERANSKINean** agertzen dena.

13.1.8.-Kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei dagokienez operadore ekonomikoak hartutako konpromisoei buruzko deklarazioa, **II.5 ERANSKINEAN** agertzen den ereduaren arabera.

13.1.9.-Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluaren arabera enpresa-talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikok aurkezten badute eskaintza, **II.6 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.10.-Kontratuaren klausula espezifikoen 1.2 klausularen arabera sortarik badago, **II.7 ERANSKINA** bete beharko da eskaintza zein sortatarako aurkezten den adierazteko; eta kontratuaren klausula espezifikoen 20.4 klausulak hainbat sorta integratzen duten eskaintzak aurkezteko aukera ematen badu, eskaintza integratzaile hori zein sorta-konbinaziotarako aurkezten den.

13.1.11.-Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", baldintza orokorren 12.5.3 klausulan xedatutako ondorioetarako, **II.8 ERANSKINA** bete beharko da.

13.1.12.-Operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.1.13.-Europar Batasunekoak ez diren hainbat operadore ekonomiko izanez gero, SPKLren 68.1 artikuluan araututa dagoen txostena aurkeztu beharko dute. Halaber, kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.

13.2.- Kaudimena metatzea, ABEEen kasuan:

Aldi baterako enpresa-elkartearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko edo profesionala zehazteko, ABEEko operadore ekonomiko bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausularen arabera klausula horretan azaltzen den kaudimenaren ordez 21.3 klausulan jasota dagoen sailkapena erabil badaiteke, eta ABEEan parte hartzen duten operadore ekonomiko guztiek sailkapena badaukate, banakako sailkapenak zerbitzu-kontratista gisa metatuko dira, kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan azaltzen den sailkapen orokorra lortu ahal izateko.

Hala ere, operadore ekonomiko guztiek ez badaukate sailkapenik, ondorioztatuko da ABEEak bete egiten dituela eskatutako kaudimen-betekizunak baldin eta, elkartea osatzen duten guztien ezaugarriak metatu ondoren, betekizun hauetakoren bat betetzen badu aldi baterako elkarteak:

- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.2 klausulan adierazitako kaudimen-betekizunak.
- Kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako Taldea, Azpitaldea eta Kategoria.

13.3.-Europako Kontratazio Agiri Bakarrari (EKAB) buruzko erregela zehatzak:

13.3.1.-Kontratua sortaka zatituta badago, eta hautaketa-irizpideak, hau da, kaudimena egiaztatzeko baliabideak, sorten arabera aldatzen badira, EKAB agiri bat aurkeztu beharko da sorta bakoitzeko. Hala eta guztiz ere, kaudimena egiaztatzeko baliabide

berberak behar badira sorta guztietarako, eta operadore ekonomikoaren eskaintza lotuko zaien sorta kopuruaren arabera aldatzen badira betekizunak, EKAB bakarra bete beharko da sorta guztietarako.

13.3.2.- Azpikontratistak:

13.3.2.1.-Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako a) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek EKABen II. zatiko D atala bete beharko dute, eta honako datu hauek jarri beharko dituzte:

- azpikontratatzea aurreikusi duten **kontratuaren zatia(k)**
- azpikontratatzea aurreikusi duten zati bakoitzaren **ehunekoa**
- eta **azpikontratist(ar)en izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta**.

13.3.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulako b) letran hala azaltzen bada, operadore ekonomikoek, aurreko 13.3.2.1 klausulan jasotako datuez gain, azpikontratatu behar duten pertsonaren EKAB agiria (II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta) aurkeztu beharko dute edo, pertsona bat baino gehiago badira, zenbat pertsona azpikontratatu behar diren eta hainbat EKAB, behar bezala sinatuta.

13.3.3.- Kaudimena kanpoko baliabideen bitartez osatzea: operadore ekonomikoak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabili nahi baditu, bere EKABa eta entitate horietako bakoitzaren EKABak ere aurkeztu beharko ditu (EKAB bat pertsona edo operadore bakoitzeko), behar bezala sinatuta, eta II. zatiaren A eta B atalak eta III. zatia behar bezala beteta; gainera, hala dagokionean, IV. zatia ere bete beharko da.

13.3.4.- ABEEa: operadore ekonomiko batzuek ABEE batean parte hartu nahi badute, bereizitako EKAB bat aurkeztu beharko dute. Bertan jaso beharko dute II. zatitik IV. zatira eskatzen den informazioa, parte hartzen duen operadore ekonomiko bakoitzeko.

13.3.5.- Sailkapena: kaudimenaren ordez kontratuaren klausula espezifikoen 21.3 klausulan adierazitako sailkapena erabili nahi bada, dagozkion talde, azpitalde eta kategoriak adierazi beharko dira EKAB agiriaren II. zatiaren A atalean, kontratazio-mahaiko kideek ofizioz eskuratu ahal izan dezaten sailkapenaren ziurtagiria.

13.3.6.- Baztertzeko arrazoiak: III. zatiko D atalean xedatuta dagoenaren ondorioetarako, baztertzeko arrazoi nazionalak (nazionalak bakarrik) honako hauek dira (SPKLren 71.1 artikuluko d) letra):

- Desgaitasunen bat duten pertsonentzako lanpostuen % 2ko erreserbaren kuota ez betetzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginaren 42. artikuluaren arabera.
- 250 langile baino gehiagoko operadore ekonomikoen kasuan, berdintasun-plan bat edukitzeko betebeharra ez betetzea, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

III.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

14.- ESKAINTZAK EZ ONARTZEKO ARRAZOIAK, ETA ARGIBIDEAK ESKATZEA

14.1.- Kontratazio-mahaiak eskaintzak ez onartzea erabakiko du baldin eta:

a) Kontratuaren klausula espezifikoen 24. klausulan aipatuez besteko gutun-azalen batean sartu badute dokumenturen bat, eta ondorioz kolokan jartzen bada eskaintzaren isilpekotasuna.
b) Kontraesanak, omisioak, akatsak edo marratuak badituzte, eta horrela eskaintzaren edukia argi ulertzea eragozten bada.
c) Eskaintzak ez badatoz bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin.
d) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua edo gehieneko unitate-prezioak gainditzen badituzte.
e) Baldintza-agiri honetako eskaintza ekonomikoaren eredutik nabarmen aldatzen badira.
f) Zenbatekoan errore nabarmena ageri badute.
g) Errorea badute edo funtsik ez badute, eta horren ondorioz bideraezinak badira, lizitatzaileak berak onarturik.
h) AKPAn edo PTPAn ezarritako baldintza edo betekizunak betetzen ez badituzte.
i) Irakurtzea edo edukia ikustea eragozten duten birusen bat badute.
j) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", lizitazio-iragarkian azaldutako epea amaitu ondoren aurkezten bada eskaintza.
k) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", eskaintza baldintza orokorren 12.2.2.1 klausulan azaldutako epea amaitu ondoren bidali dela jakinarazten bada.
l) Kontratuaren klausula espezifikoen 20.5 klausulak ezartzen badu izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez direla", kanpoan identifikatuta (A, B, C) ez dauden gutun-azaletan aurkezten bada eskaintza, edo gutun-azalak itxita aurkezten ez badira.

14.2.- Kontratazio-mahaiak adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak hobeto ulertu ahal izateko **argibideak**. Inola ere ez da onartuko lizitatzaileak, argibideak ematean, eskaintzan adierazitako ezer aldatu nahi izatea.

15.- AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK IREKITZEA ETA KALIFIKATZEA.

15.1.- Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak bilera egingo du A gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak kalifikatzeko.

Baldin eta ondorioztatzen bada aztertutako dokumentazioa zuzena eta nahikoa dela betekizunak bete direla egiaztatzeko, lizitatzaile guztiak prozeduran onartzen direla erabakiko du.

Baldin eta konpon daitekeen akats edo omisioren bat ikusten badu aztertutako dokumentazioan, hiru (3) egun balioduneko epea emango die dokumentazio hori aurkeztu duten edo zerbait aurkeztu ez duten lizitatzaileei, ikusitako akats edo omisioa konpontzeko behar den dokumentazioa aurkez dezaten.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta lizitatzaileak onartuko edo baztertuko diren erabaki. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

15.2.- Onartutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, azken kasu horretan, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

16.- BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEN BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA.

16.1.- Gutun-azalak jendaurrean irekitzea.

Kontratazio-mahaiak, ekitaldi publikoan, lizitatzaileak onartu edo baztertu diren jakinaraziko du eta, ondoren, onartu diren lizitatzaileek aurkeztu zituzten C gutun-azalak irekiko ditu.

16.2.- Kasu orokorra: kontratazio-mahaiak ebaluatzea.

Dokumentazioa kontratua sustatzen duen zerbitzuari bidaltzeko erabakia hartu dezake kontratazio-mahaiak, zerbitzuak berak egiazta dezan eskaintzen edukia ez dela PTPAn ezarritako zehaztapenen aurkakoa, eskaintzak balioets ditzan eta txostena egin dezan.

Baldin eta kontratua sustatzen duen zerbitzuak, ebaluazioa egitean, egiaztatu egiten badu eskaintzaren bat baldintza-agirien aurkakoa dela, edo beste gutun-azal batean sartu behar lituzkeen dokumentu edo datuak sartu dituela gutun-azal honetan, txostenean idatziko du inguruabar hori. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

16.3.- Salbuespena: aditu-batzorde batek edo erakunde tekniko espezializatu batek ebaluatzea.

Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.7 klausulak ezartzen badu aditu-batzorde bat edo erakunde tekniko espezializatu bat izendatu behar dela eskaintzaren zati hau ebaluatzeko, izendatutako organoari bidaliko dio dokumentazioa kontratazio-mahaiak, ebaluazioa egin eta txostena egin dezan. Txostena egindakoan, kontratazio-mahaiari bidaliko dio eskaintzak osatzen dituzten dokumentuekin batera.

17.- FORMULAK APLIKATUZ AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEKEEN ESKAINTZAREN ZATIA IREKITZEA ETA EBALUATZEA

17.1.- GUTUN-AZALAK IREKI AURREKO JARDUKETAK

17.1.1.-Balio-iritzi batean oinarritu behar duten irizpideak erabiltzen dira

Baldintza orokorren 16.2 klausulan aurreikusitako kasu orokorrean, B gutun-azalak ireki aurretik, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak:

Bileraren zati publikoa hasi aurretik:

- Kontratua sustatzen duen zerbitzuak egindako balorazio-txostena aztertuko du, eta eskaintzak balioetsi eta puntuatuko ditu.
- Baldintza orokorren 14.1 klausulan aurreikusitako kasuetan, eskaintza(k) ez onartzea erabakiko du.

Bileraren zati publikoa hasi ondoren:

- Eskaintza bakoitzari emandako puntuak jakinaraziko dizkie ekitaldi publikora bertaratu direnei eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango die, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

Baldintza orokorren 16.3 klausulan aurreikusitako salbuespenezko kasuan, kontratazio-mahaiak, gutun-azalak ireki aurretik, aditu-batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak emandako puntuak jakinaraziko ditu eta, hala badagokio, onartu ez diren eskaintzen berri ere emango du, ez onartzeko arrazoiak azalduta.

17.1.2.- Ez dira erabiltzen balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideak.

Gutun-azalak ireki aurretik, zein lizitatzaile onartu diren eta zein baztertu diren jakinaraziko du kontratazio-mahaiak.

17.2.- GUTUN-AZALAK IREKITZEA ETA ESKAINTZAK IRAKURTZEA

Kontratazio-mahaiak, aurretiko jarduketak egin ostean, ekitaldi publikoan irekiko ditu baztertu ez diren lizitatzaileek aurkeztutako B gutun-azalak, eta eskaintzak irakurriko ditu.

18.- ESKAINTZAK EBALUATZEA

Jarraian, honako jarduketa hauek egingo ditu kontratazio-mahaiak, beharrezkoak diren bileretan:

18.1.- Egiaztatuko du ea eskaintzaren batek baldintza orokorren 14.1 klausulan ezarritako ez onartzeko arrazoiren bat duen. Halakorik egonez gero, eskaintza ez onartzeko erabakia hartuko du.

18.2.-Egiaztatuko du ea onartutako eskaintzaren batek gainditzen dituen kontratuaren klausula espezifikoen 22.3 klausulan ezarrita dauden mugak, eta eskaintzaren batek hala egiten badu, SPKLren 149.4 artikuluan aurreikusita dagoena egingo du. Kontratazio-mahaiak erabakiko du zein izango den entzunaldi-epea, eskaintzen ezaugarriak kontuan hartuta, baina gutxienez hiru (3) eta gehienez hamar (10) egun baliodunekoa izango da.
Prozedura hori amaitutakoan, kontratazio-organoari proposatuko dio bete ezin diren eskaintzak onartzea ala ez onartzea.

18.3.- Eskaintzen puntuazioak kalkulatuko ditu eta eskaintzarik onena zein den zehaztuko du, haietariko bakoitzak adjudikazio-irizpide guzti-guztietan lortutako puntuak batuta.

Kalkulu hori egiteko, ez ditu kontuan hartuko ez onartzeko proposatu diren eskaintzak.

Eskaintza bik edo gehiagok puntuazio berbera lortzen badute, errekerimendua egingo die eskaintzok aurkeztu dituzten lizitatzaileei, gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean aurkez ditzaten berdinketa hausteko irizpide zehatzak betetzeari buruzko egiaztagiriak, baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan irizpide horiek azaltzen badira. Baldin eta kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan irizpide zehatzik ezarri ez bada, baldintza orokorren 19. klausulan jasotzen diren irizpideei jarraituko zaie berdinketa hausteko.

19.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren klausula espezifikoen 23. klausulan ez bada aurreikusten berdinketa hausteko irizpide zehatzik, eta kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatu ondoren berdinketarik badago zenbait eskaintzaren artean, honako irizpide sozial hauek (adierazitako hurrenkeran) aplikatuko dira berdinketa ebazteko, betiere eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta:

a) Lizitatzaile bakoitzaren plantillatik desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena; berdintasuna izatekotan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusio neurrien bidez dauden langile kopuru handiena duena.
b) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
c) Lizitatzaile bakoitzaren plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena.
d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio, lan-kontratu egokiak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioen dokumentuak eta zuzenbidean onartutako bestelako dokumentuak ere aurkeztuz, baldin eta aipatu diren irizpide sozial horiek egiaztatu nahi badituzte.

IV.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

20.- ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

Kontratazio-mahaiak puntuen arabera sailkatuko ditu eskaintzak, puntu gehien eskuratu duenetik puntu gutxien duenera, eta sailkapen horren arabera igorriko dio adjudikazio-proposamena kontratazio-organoari.

Kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren proposamena onartuko du.

21.- ADJUDIKATU AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

21.1.- Kontratazio-organoak adjudikazio-proposamena onartu ondoren, errekerimendua egingo zaio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

1.- Jarduteko gaitasuna daukala egiaztatzeko:

1.1.- Pertsona juridikoak diren Espainiako lizitatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko: euren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura, aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren dokumentua, hala badagokio pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.

1.2.- Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren lizitatzaileek, SPKLren 84.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

1.3.- Atzerriko gainerako lizitatzaileek SPKLren 84.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

2.- Ahalordea: baldin eta eskaintza sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, berariazko ahalorde nahikoa aurkeztu beharko du sinatzaileak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko da ahalorde hori, baldin eta, zein motatako pertsona juridikoa den kontuan hartuta aplikatu behar den araudiaren arabera, nahitaez egon behar bada inskribatuta.

3.- Kaudimena: kontratuaren klausula espezifikoen 21.1 klausularen arabera gutxieneko kaudimen-betekizun batzuk eduki behar badira, kontratuaren klausula espezifikoen 25.1 klausulan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du lizitatzaileak betekizun horiek egiaztatzeko, salbu eta betekizunen ordez sailkapena erabiltzea erabaki bada.

4.- Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala: kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan azaltzen bada eskaintzak aurkezteko azken egunean eduki behar dela gaikuntza.

5.- Lizitatzaileak kontratua betearazteari adskribatu nahi dizkion baliabide materialak eta giza baliabideak eskura izatea: kontratuaren klausula espezifikoen 25.2 klausulan jasota dagoen dokumentazioa.

6.- Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak eskura izatea: lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiliko baditu, **V.1 ERANSKINEAN** agertzen den **"Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzeko konpromisoa"** aurkeztu beharko du.

7.- Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera **(V.2 ERANSKINA).**

8.- Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea: zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak, eta zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

9.- Bermea**:** behin betiko bermea eta, hala badagokio, berme osagarria eratu izanaren frogagiria (salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 8.2 klausulan halakorik eskatzen ez bada).

10.- Publizitate-gastuak**:** kontratuaren klausula espezifikoen 7. klausulan hala azaldu bada, dagozkion publizitate-gastuen ordainagiria.

11.- Erreserbatutako kontratuak: kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 edo 20.8 klausulen arabera kontratua erreserbatua bada, lizitatzaileak dokumentu bidez egiaztatu beharko du erreserba horren baldintzak betetzen dituela.

12.- Kopia sinplearen bidez aurretiaz aurkeztu zirenen artean eska daitezkeen jatorrizko dokumentuak.

Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez egin ahal izango dira ziurtagiriak.

Baldintza orokorren 11.5 klausulan azaltzen diren erregistro, zerrenda eta datu-baseetan inskribatzeak klausula horretan azaltzen diren ondorioak izango ditu erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeari dagokionez, betiere dohainik sartu badaiteke horietara.

21.2.- Errekerimendua ezarritako epean behar bezala betetzen ez badu, eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko a) letran ezarritakoa.
- Dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, euren eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta.

22.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA ADJUDIKAZIOA JAKINARAZTEA

22.1.- Adjudikazioa lortzen duen proposamenak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta bost (5) egun balioduneko epean adjudikatuko beharko du kontratua kontratazio-organoak.

22.2.- Adjudikazio-ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, horrekin batera, hala badagokio, eskaintzaren barruan balio-iritzi batean oinarrituta aplikatu beharreko irizpideekin ebaluatu diren zatiak balioesteko txostena eta eskaintza anormalki baxuegien justifikazioa aztertzeko txostena; biak ere, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira hamabost (15) eguneko epean.

22.3.- 44. artikuluko errekurtso berezi baten ebazpenaren edukiaren ondorioz kontratazio-organoak beste lizitatzaile bati adjudikatu behar badio kontratua, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaile horri, baldintza orokorren 21. klausulan jasotako dokumentazioa aurkez dezan.

22.4.-Adjudikazioa, betiere, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko da.

23.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

23.1.- Kontratua SPKLren 153. artikuluak xedatzen dituen baldintza eta epeetan formalizatuko da, eta aurretiaz honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) ABEEa eratzeko eskritura publikoa, adjudikaziodunek ABEE batean elkartuta parte hartu badute.
b) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan zehazki eskatzen diren aseguruen polizak; poliza horietan aseguratuta egon beharko dute kontratistak, azpikontratistak eta kontratuaren klausula espezifikoen 19.1 klausulan adierazitako botere adjudikatzaileak. Gainera, polizaren ordainagiriak ere aurkeztu behar dira.
c) Enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala, kontratuaren klausula espezifikoen 21.4 klausulan zehaztuta badago, eta, gainera, klausulan azaldu bada kontratua formalizatu baino lehen eduki behar dela gaikuntza hori.
d) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 26.4 klausulan azaltzen den dokumentazioa.
e) Kontratua gauzatzeko kontratistak datu pertsonalak tratatu behar baditu tratamenduaren arduradunaren kontura, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzariei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adieraziko duen adierazpena.

23.2.- Formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, perfekzionatzen denetik aurrera zenbatuta. Halaber, erregulazio harmonizatuko kontratua bada, formalizazioari buruzko iragarkia bidaliko da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, gehienez ere hamar (10) eguneko epean, formalizatzen denetik aurrera.

23.3.- Adjudikaziodunari leporatu ahal zaizkion arrazoiengatik ezinezkoa bada kontratua legearen arabera ezarritako epeetan formalizatzea, honako hau egingo da:

- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZa sartu gabe), zigor gisa; zenbateko hori behin-behineko bermetik hartuko da, baldin eta hori eratu bada, hargatik eragotzi gabe SPKLren 71.2 artikuluko b) letran ezarritakoa.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatzea, eskaintzak zein ordenatan sailkatu diren kontuan hartuta, baldintza orokorren 21.1 klausulan jasotako dokumentazioa errekeritu eta aurkeztu ondoren.

23.4.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.1 klausulan behin-behineko bermea eskatu bada, automatikoki azkenduko da kontratua formalizatu ondoren, eta berehala itzuliko zaie kontratista bihurtu ez diren lizitatzaile guztiei. Bermea itzultzeko, aurkezteko erabili den araubide berbera erabiliko da.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

24.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.2 klausulan adierazitako organoak egin behar dituen kontratuaren jarraipen- eta betearazpen-eginkizunei kalterik egin gabe, kontratuaren arduradunak gainbegiratu eta ikuskatu beharko ditu lanak; arduradun horrek honako eginkizun hauek egingo ditu:

a) Kontratazio-organoari proposatzea baldintza orokorren 25.2 klausulan aurreikusitako lan-programa onets dezala.
b) Idatziz ematea prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak.
c) Baldintza orokorren 32.1 klausulan ezartzen diren zerbitzuen ziurtagiriak onestea.
d) Baldintza orokorren 32.2 klausulan adierazitakoak, hau da, prestazioa behar bezala ematen eta hartzen dela egiaztatzeari buruzkoak.
e) Kontratuaren arabera kontratistak bere gain hartu dituen betebeharrak gainbegiratzea eta bete egin dituela egiaztatzea, kontratazio-organoari jakinaraztea zerbait bete ez dela eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko proposamena egitea.
f) Baldintza orokorren 26. klausularen arabera kontratuaren betearazpenari adskribatu zizkion giza baliabideak eta baliabide materialak aldatzeko baimena ematea.
g) Egin behar diren aldaketak proposatzea.
h) Errekerimendua egitea kontratistari, kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen lan-baldintzei buruzko datuak eman ditzan.
i) Errekerimendua egitea kontratistari dokumentazio gehigarria eman dezan, egiaztatu ahal izateko kontratuaren indarraldi osoan dauzkala hirugarren entitateen kaudimena eta/edo baliabideak, kaudimen eta/edo baliabide horiek oinarri hartu baitzituen kontratuaren adjudikazio-prozeduran.
j) Kontratistak azpikontratistei eta/edo hornitzaileei ordaintzen diela egiaztatzea, baldintza orokorren 28.3.2 klausulan xedatutakoaren arabera.
k) Kontratuaren betearazpenean berandutuz gero, txostena egitea sortutako atzerapena kontratistari leporatu ahal zaion zehazteko
l) Baldintza orokorren 35. klausulan ABEEko kideen lagapenari eta aldaketari buruz jasotzen diren txostenak egitea.
m) Errekerimendua egitea kontratistari, akta bidez ziurta dezan kontratua betearazten amaitu ondoren datu pertsonalak zeuzkaten euskarri guztiak itzuli dituela edo datu pertsonalak zeuzkaten fitxategi guztiak suntsitu dituela.

Kontratuaren klausula espezifikoen 19.2.3 klausulan agertzen denez kontratuaren arduraduna aldatuz gero, idatziz jakinaraziko zaio hori, berehala, kontratistari.

25.- ZERBITZUAK EMATEA

25.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.

Zerbitzuak ematean zorrotz beteko da kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan, kontratistaren eskaintzan eta hori guztia betearazi edo interpretatzeko kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideetan ezarrita dagoena.

25.2.- Lan-programa.

Kontratuaren klausula espezifikoen 18.1 klausulan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat entregatu beharko dio kontratuaren arduradunari zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera. Lan-programa horretan, PTPAko klausula egokian zehazten diren datu eta informazioak jaso beharko ditu.

Lan-programak nahitaez bete beharko ditu AKPAn eta, hala badagokio, eskaintzan ezarritako epeak, eta kontratazio-organoak onartuko du hamabost (15) egun balioduneko epean.

25.3.- Baimenak.

Kontratistak eskuratu behar ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia publiko nahiz pribatu guztiak, baita sortzen diren gastuak ordaindu ere.

25.4.-Aseguruak.

Kontratistak nahitaezko aseguru guztiak kontratatu behar ditu, baita kontratatuta mantendu ere, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan ezartzen direnak.

25.5.- Lankidetza.

Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe eman behar dizkio botere adjudikatzaileari kontratuaren objektua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak; adibidez: azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea… Era berean, prestazioa zein lekutan ematen den, horietarako sarbide librea eman beharko dio kontratuaren arduradunari.

25.6.- Kontratistaren erantzukizuna.

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua betearaztean omisio edo okerrik egiten badu, metodo desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki ematen baditu eta ondorioz kalterik eragiten badio botere adjudikatzaileari edo beste hirugarren bati, kontratista izango da erantzulea.

Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratistak kalte-ordaina eman beharko du, SPKLren 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

25.7.- Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan eman beharreko kalte-ordaina.

Kontratista aholku-emaileari egotz dakizkiokeen akats edo omisioen ondorioz proiektuan aurreikusitako obra egiteko aurrekontua benetako kostuaren % 20 baino gehiago desbideratzen denean (gorantz zein beherantz), kontratista aholku-emaileak kalte-ordaina eman beharko dio botere adjudikatzaileari, SPKLren 315. artikuluan aurreikusitako baremoaren arabera.

26.- HORNIDURA EMATEKO ERABILITAKO BALIABIDEAK

26.1.- Baliabideak adskribatzeko konpromisoa.

Kontratista behartuta dago baliabideak adskribatzeko konpromisoan adierazitako baliabideak, halakorik egonez gero, kontratuaren betearazpenari adskribatzera **(II.2 ERANSKINA)**, eta horrez gain, kontratuaren betearazpena kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera egiteko behar diren baliabideak ere adskribatu beharko ditu.

Adierazitako baliabide materialak ordeztu nahi badira, ezinbestekoa izango da aldez aurretik jakinarazpena egitea kontratuaren arduradunari. Hark ziurtatuko du, emandako ziurtagirien bitartez, proposatutako baliabideak nahitaezko betekizunak betetzen dituela, eta zazpi (7) egun balioduneko epea izango du baimena jakinarazteko. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste baliabide bat proposatu ahal izango du.

Giza baliabideak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da klausula honetan ezarritakoa betetzea. Nolanahi ere, ordezpen horren ondorioz eragozpenen bat sortuko balitz lan-

ingurunera egokitzeko, ordeztu behar den kideak eta ordezkoak batera jardun beharko lukete, kostu gehigarririk gabe, beharrezkoa den denbora guztian.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

a) Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezpenen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:

- Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
- Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Beste hautagai bat proposatu ahal izango du kontratistak.

b) Botere adjudikatzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordezpenen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezpena baimenduko du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzeko arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Halaber, arau berak aplikatuko zaizkie kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideei, baita kontratistak lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena eta/edo baliabideak aurkeztu baditu ere.

26.2.- Langileei buruzko erregela zehatzak.

Zerbitzuaren prestazioari adskribatutako langileak kontratistaren mende bakarrik egongo dira eta harenak izango dira enplegatzaileei atxikitako eskubideak eta betebeharrak. Ondorio horietarako, kontratistak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatu behar dizkion langileak hautatzea. Hala ere, botere adjudikatzaileak ahalmena izango du baldintza-agirietan, hala badagokio, ezarri diren prestakuntza profesionalaren betekizunak betetzen direla egiaztatzeko.

b) Langileen egonkortasuna mantentzea eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izatea, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko (exijentzia hori justifikatzeko arrazoirik baldin badago); aldaketarik egonez gero, horren berri emango dio uneoro botere adjudikatzaileari.

c) Enplegatzaile ororen berezko zuzendaritza ahalmena modu errealean, efektiboan eta jarraituan baliatzea kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileen gainean. Bereziki, hauek egin beharko ditu: soldatak negoziatu eta ordaindu; baimenak, lizentziak eta oporrak eman; langileak ordeztu absentziak daudenean; Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak bete –dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne–; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak bete; diziplina-ahala erabili, eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak bete.

d) Langileek, jarduera garatu bitartean, baldintza-agirietan kontratuaren objektu gisa mugatutako jarduerari dagozkion eginkizunak besterik ez dituztela betetzen bermatzea.

e) Bere plantillako pertsona bat gutxienez koordinatzaile izendatzea, honako zeregin hauek betetzeko:

- Kontratistaren mintzakide gisa jardutea botere adjudikatzailearen aurrean, komunikazioa bideratuz batetik kontratistaren eta kontratuari adskribatutako langileen eta bestetik botere adjudikatzailearen artean, kontratua betearaztetik eratorritako auzi guztietan.
- Lana langileen artean banatzea eta langileei lanerako agindu eta jarraibideak ematea prestazioa behar bezala emateko.
- Langileek aginduta dauzkaten eginkizunak behar bezala egiten dituztela gainbegiratzea eta lanpostuan daudela kontrolatzea.
- Oporren araubidea antolatzea.

f) Botere adjudikatzaileari jakinaraztea kontratuaren betearazpenari adskribatutako lantaldean sortzen diren aldaketak, noizbehinkakoak zein iraunkorrak izan.

26.3.- Lan-baldintzei buruzko informazioa.

Hurrengo apartatuetan azaltzen diren datu eta dokumentuak eman behar dizkio kontratistak kontratuaren arduradunari, kasu bakoitzean adierazten diren epe eta baldintzetan:

a) Kontratuaren betearazpenari adskribatutako langile guztien lan-baldintzei buruzko datuak: posta elektronikoz aurkeztuko dira; horretarako, **VI.3 ERANSKINEAN** agertzen den erantzukizunpeko deklarazioa bete beharko da zazpi (7) egun balioduneko epean, dagokion errekerimendua jasotzen denetik aurrera.

b) Kontratuaren arduradunak eskatzen dituen dokumentuak, emandako datuak benetakoak direla eta kontratistak enplegatzaile gisa bere gain hartutako lan arloko betebeharrak bete dituela egiaztatzeko: posta elektronikoz aurkeztuko dira, eskaneatutako kopiekin, hamar (10) egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera.

Kontratuaren arduradunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan eskatu ahal izango du informazio hori, eta, bereziki, SPKLren 130. artikuluan xedatuta dagoenaren ondorioetarako.

26.4.- Kontratua betearazteko lekua.

Botere adjudikatzaile kontratatzailearenak berarenak ez diren bulego edo instalazioetan emango da prestazioa. Hori ezinezkoa bada, plantillen nahasketa saiheste aldera, kontratistaren langileek ez dituzte espazioak eta lantokiak partekatuko botere adjudikatzailearen zerbitzuko langileekin, inguruabar zehatzek aukera ematen badute; gainera, behar diren ikur bereizgarriekin identifikatuko dira kontratistaren langileak eta baliabideak, esate baterako uniformeak edo errotulazioak erabilita.

26.5.- Kaltegabetasun-erregela.

Kontratistak klausula honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik botere adjudikatzailea kontratistarekin batera solidarioki diru-kopururen bat ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari kobratuko zaio ordaindutako zenbatekoa, egokiak diren legezko ekintzen bitartez.

26.6.- Langileen subrogazioa.

Lan araudiaren arabera langileak subrogatu behar badira, ordura arte zerbitzua ematen zuen kontratista ez den beste operadore ekonomiko bati adjudikatzen zaionean kontratua, kontratistak ordaindu beharko ditu subrogazioaren mendean dauden langileei ordaindu ez

zaizkien soldatak, bai eta sortu diren Gizarte Segurantzaren kotizazioak ere, kontratua suntsiarazten bada ere. Betebehar hori inola ere ez da kontratista berriarena izango.

Kasu horretan, botere adjudikatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru-kopuruen atxikipena egingo du soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatu arte.

27.- BETEBEHARRAK LAN ARLOAN, GIZARTE SEGURANTZAREN ARLOAN ETA LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN ARLOAN

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

27.1.-Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

27.2.-Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

27.3.-Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

a) Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri.

b) Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onetsi zuen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatu.

d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen V. kapituluan aurreikusitako kontsulta eta parte-hartzea egiteko modua arautzen duen idatzizko prozedura edukitzea, edo, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen eta/edo jardueren zerrenda eduki.

g) Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatu, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak), lan-arriskuen prebentzio planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman dela.

h) Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria eduki, beharrezkoak balira.

i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta aldagelak eman, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatu, langileen atseden-egunak errespetatuz eta aparteko orduak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

27.4.- Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen botere adjudikatzaileari eman.

27.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, indarreko arauek xedatutakoa bete behar du adjudikaziodunak; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere adjudikatzaileak.

28.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratua betearazteko baldintza berezi hauek eta kontratuaren klausula espezifikoen 11. klausulan jasota daudenak kontratistak zein azpikontratistek bete beharko dituzte.

28.1.- Hizkuntza arloko baldintzak.

28.1.1.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, euskara erabiliko da normalean. Kontratua gauzatzeari dagokionez, hauxe da "normalean euskara" erabiltzea:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz hitz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko eginkizunetan botere esleitzailearekin harremanetan jartzen direnean. Botere esleitzailea euskaraz zuzentzen bazaie kontratua gauzatzeari atxikitako langileei, eta langile horiek ez badute hizkuntza horren ezagutza nahikorik, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala eman beharko ditu botere esleitzailearekiko harremana euskaraz egin ahal izateko behar diren baliabideak edo euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.

b) Idatzizko komunikazioak euskaraz idatziko dira.

28.1.2.- Kontratuaren objektua betearaztearen ondorioz zerbitzuak eman behar bazaizkie herritarrei, edo harremanak izan behar badira hirugarrenekin edo bestelako herritarrekin, kasuan kasu erabiltzaileak edo hirugarrenak hautatzen duen hizkuntzan egingo dira enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo kontratua betearazi bitartean harremanetan egongo diren pertsonen arteko komunikazioak, ahozkoak zein idatzizkoak. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua betearazteaz arduratzen den kontratistak hizkuntza ofizial bietan egingo dizkie jakinarazpen eta komunikazio guztiak pertsona fisikoei zein juridikoei, fakturak eta salerosketako bestelako dokumentuak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.
Nolanahi ere, behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu kontratistak zerbitzuaren hartzaileek, uneoro, euskaraz jaso ahal izan ditzaten arreta, informazioa eta komunikazioa.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuz adjudikaziodun berria azkendutako kontratuari adskribatutako langileekin subrogatu behar bada lan-harremanei dagokienez, eta langile horiek ez badaukate hizkuntza-gaitasun nahikorik kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko, euskara kontratuan eskatzen den bezala ezagutzen eta erabiltzen duten langileak hartu beharko ditu kontratista berriak langile subrogatuak ordezteko.

28.1.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egiteko kontratuetan, euskaraz entregatu beharko dira lan horiek, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

28.2.- Baldintza sozialak edo enpleguari buruzkoak:

28.2.1.- Lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

28.2.2.- Baldintza orokorren 26.3 klausulan xedatuta dagoena betetzea.

28.2.3.- Kontratua betearazi bitartean, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera dagokion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaintzea, eta inola ere ez ordaintzea soldata hori baino gutxiago.

28.2.4.- Gardentasun instituzionalez lantzea kontratua betearaztetik eratorritako datu guztiak.

28.3.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzen zaiela egiaztatzea.

28.3.1.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.

28.3.2.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiria, behin prestazioa amaituta, SPKLren 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

28.4.- Datuen babesa

Kontratistari datuak lagatzea dakarten kontratuetan, kontratistak Europar Batasunaren eta Espainiako Estatuaren araudia bete beharko du datuak babesteari dagokionez.

29.- KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

29.1- Konfidentzialtasuna.

Kontratua betetzarakoan kontratistak eskura dezakeen informazio guztia konfidentziala da. Kontratistak eta kontratua betearazteari esleitutako langileek ezin dute datu bat ere eurentzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere, kontratazio-organoaren baimenik gabe; gainera, euren esku dauzkaten bitarteko guztiak jarri beharko dituzte informazio guztiaren izaera konfidentziala eta isilpekoa zaintzeko.

Aurreko edozein pertsona fisikok edo juridikok konfidentzialtasun-betebeharra eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren betebeharra urratuz gero, aplikatzekoa den araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalteak eskatuko dira. Betebehar horiekin bete beharko da, nahiz eta kontratu-harremana amaitu.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horiek eskuratzea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

29.2.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat jotzen da datu pertsonaletan edo datu pertsonalen multzoetan egindako edozein eragiketa edo eragiketa-multzo oro, prozedura automatizatuen edo automatizatu gabeen bidez egindakoa, hala nola bilketa, erregistroa, antolaketa, egituraketa, kontserbazioa, egokitzapena, aldaketa, erauzketa, kontsulta, erabilera, transmisio bidezko komunikazioa, zabalkunde bidezko komunikazioa, edo beste edozein eratako gaikuntza, sarrera, erkaketa edo interkonexioa, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Horren ondorioz, kontratistak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, eta unean-unean indarrean dagoen araudia bete beharko du, datu pertsonalak behar bezala tratatu eta babestuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarriaren arabera.

Kontratistak datuak beste xede baterako erabiltzen baditu, edo kontratuan edo indarrean dagoen araudian ezarritakoa bete gabe jakinarazten edo erabiltzen baditu, tratamenduaren organo erantzuletzat hartuko da, eta berak egindako arau-hausteen erantzule izango da.

VII.2. Eranskinean («Datu pertsonalak tratatzeko agindua») zehatz-mehatz azaltzen dira babestu beharreko datu pertsonalak, egin beharreko tratamendua eta kontratistak ezarri beharreko neurriak.

Kontratua gauzatzearen ondorioz, VII.2. Eranskinean ("Datu pertsonalak tratatzeko enkargua") ezarritakoa aldatu behar izanez gero, kontratistak arrazoitu egin beharko du, eta eskatzen dituen aldaketak adierazi. Tratamenduaren arduraduna eskatutakoaren arabera egongo balitz, VII.2. Eranskina («Datu pertsonalak tratatzeko enkargua») emango luke, eguneraturik, eta bertan tratamenduaren xehetasunak zehatz-mehatz jasoko lirateke beti.

29.3.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak

Klausula honetako betebeharrak eta agiri honetako VII.2 Eranskineko ("Datu pertsonalak tratatzeko mandatua") edukia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28.3 artikuluak dira. Erregelamendu hori datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari dagokionez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du (aurrerantzean, DBEO) tratamendu-enkargurako kontratua da, tratamenduaren ardura duen organoaren eta kontratistaren artean, tratamenduaren arduradun gisa diharduenean.

Betebehar horiek betetzeko egin beharreko prestazioak ez dira ordainduko plegu honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitakoaz bestelako moduan, eta zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute, eta, hala badagokio, kontratuaren iraupen bera izango dute. Hala ere, kontratua bukatutakoan, sekretu-eginbeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, kontratua gauzatzen ari diren pertsona guztientzat.

Kontratu honen xedea betetzeko, ez da beharrezkoa kontratistak tratamenduaren ardura duen organoaren beste datu pertsonalik eskuratzea, eta, beraz, ez du inola ere baimenik VII.2 Eranskinean («Datu pertsonalak tratatzeko enkargua») zehazten ez diren beste datu pertsonal batzuk eskuratzeko edo tratatzeko.

Kontratua gauzatzean gorabeheraren bat gertatzen bada, eta gorabehera horrek berekin badakar VII.2 Eranskinean jasota ez dauden tratamenduaren organo arduradunaren ardurapeko datu pertsonalak ustekabean edo gorabeheran eskuratzea, kontratistak tratamenduaren ardura duen organoari jakinarazi beharko dio, zehazki, Datuak Babesteko ordezkariari, ahalik eta arreta handienarekin eta, beranduenez, 72 orduko epean.

Kontratistak betebehar hauek bete beharko ditu eta beteko dituela bermatuko du, «Datu pertsonalak tratatzeko enkargua» izeneko eranskinean zehaztutakoarekin osatuta, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 28. artikuluan aurreikusitakoarekin bat:

a) Datu pertsonalak baldintza-agiri honetan eta kontratua gauzatzeko aplika daitezkeen gainerako kontratu-agirietan jasotako jarraibideen arabera tratatzea, bai eta, hala badagokio, tratamenduaren erantzuleak unean-unean idatziz ematen dizkionak.

Kontratistak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari jarraibide bat, bere iritzi, une bakoitzean aplikatu beharreko datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa bada.

b) Datu pertsonalak kontratuaren objektua betetzeko eta soil-soilik horretarako erabiliko dituzte.

c) Datu pertsonalak segurtasun-irizpideen eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan aurreikusitako edukiaren arabera tratatzea, eta eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak betetzea eta hartzea.

Bereziki, eta izaera mugatzailerik gabe, VII.2 eranskinean («Datu pertsonalak tratatzeko agindua») zehaztutako arrisku- eta segurtasun-maila babesteko neurriak aplikatu behar dira.

d) Konfidentzialtasun osoa izatea kontratua gauzatzeko eskura dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datu horiek tratatzearen ondoriozkoei buruz ere, edozein dela ere datu horien euskarria. Betebehar hori kontratistaren kontura datu pertsonalak tratatzeko edozein fasetan parte har dezakeen pertsona orori dagokio, eta kontratistaren betebeharra da bere mende dauden pertsonei sekretu-eginbeharra erakustea, bai eta betebehar horri eustea ere, nahiz eta zerbitzua eman edo deslotu ondoren.

e) Agiri honen xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda egitea, eta bermatzea pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi behar baitizkie. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura jarriko ditu egiaztagiri horiek.

f) Datu pertsonalak babesteko behar den prestakuntza bermatzea datu horiek tratatzeko baimena duten pertsonei.

g) Datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea (lagatzea) eta ez zabaltzea, ezta gordetzeko ere, kasu bakoitzean tratamenduaren ardura duen organoaren aldez aurreko eta berariazko baimena izan ezean.

h) Datuak Babesteko Ordezkaria izendatzea, DBEOren arabera beharrezkoa bada eta borondatez jarduten bada. Tratamenduaren arduradunari bere izendapenaren berri eman beharko zaio, bai eta kontratistak datu pertsonalak babesteko izendatutako pertsona fisikoaren edo fisikoen identitatea eta harremanetarako datuak ere (tratamenduaren arduradunaren ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa betetzearen arduraduna baita, bai alderdi legaletan, formaletan, bai segurtasunekoetan.

i) VII.2 Eranskinean ("Datu pertsonalak tratatzeko mandatua") adierazitako tratamenduaren ardura duen organoak aukeratuta, eskuratu dituen datu pertsonalak, kontratistak tratamenduaren ondorioz sortutakoak, eta agiri honen xede den kontratu-prestazioa amaitu ondoren datu horietako edozein jasotzen duten euskarriak eta dokumentuak itzultzea edo suntsitzea. Ez dira suntsituko, baldin eta lege bidez edo Erkidegoko zuzenbideko arau bidez kontserbatu badaitezke edo hala behar bada.

Hala ere, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak gorde ahal izango ditu tratamenduaren ardura duen organoarekiko harremanaren erantzukizunak erator daitezkeen denboran; kasu horretan, blokeatuta eta gutxieneko denborarako gordeko ditu, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu epe horren amaieran.

j) Datu pertsonalak tratatzea tratamendu-sistema eta -gailuetan (eskuzkoak eta automatizatuak) eta VII.2. eranskinean («Datu pertsonalak tratatzeko enkargua») zehazten diren kokalekuetan. Ekipamendu hori tratamenduaren ardura duen organoaren

kontrolpean egon daiteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolpean, edo tratamenduaren ardura duen organoak aldez aurretik eta idatziz berariaz baimendutako beste batzuen kontrolpean, eranskin horretan ezarritakoaren arabera, eta soilik kontratuaren xedea betetzeko izendatutako erabiltzaileek edo profilen kontrolpean.

k) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatzekoa den araudiak segurtasun-eremu baliokidetzat jotzen duen beste gune batean tratatzea, eta ez tratatzea gune horretatik kanpo, ez zuzenean, ez baimendutako edozein azpikontratistaren bidez, agiri honetan edo kontratuko gainerako dokumentuetan ezarritakoaren arabera, salbu eta Batasuneko edo aplikagarri zaion estatu kideko Zuzenbidearen arabera horretara behartuta badago, VII.2. Eranskinean («Datu pertsonalak tratatzeko agindua») beste zerbait adierazten bada edo tratamenduaren ardura duen organoak berariaz hala agintzen badu.

Zuzenbide nazionalaren edo Europar Batasunaren ondorioz, kontratista datu pertsonalen nazioarteko transferentziaren bat egitera behartuta badago, idatziz jakinaraziko dio lege eskakizun hori tratatu behar duen organoari, tratamendua egin aurretik,eta tratamenduaren ardura duen organoari aplika dakizkiokeen legezko baldintza guztiak betetzen direla bermatuko du, salbu eta Zuzenbide aplikagarriak interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik debekatzen badu.

l) Tratamenduaren ardura duen organoari berehala eta arretaz jakinaraztea bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketa oro, gehienez ere 72 orduko epean. Datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo erabilgarritasuna arriskuan jartzen duen edo izan dezakeen gorabehera edo informazioaren tratamendu- eta kudeaketa-sisteman izandako edozein akats dokumentatzeko informazio garrantzitsu guztia eman beharko dio, bai eta kontratua gauzatzean lortutako datuak eta informazioak hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz konfidentzialtasuna urra dezakeen edozein informazio ere, baita GPD zein pertsonak konfidentzialtasuna galdu zuen zehaztu ere.

m) Tratamenduaren ardura duen organoari ahalik eta lasterren jakinaraztea interesdunak bere aurrean dituen eskubideetako edozein erabiltzen ari dela, hala nola: datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, aurka egitea, bere datu pertsonalen tratamendua eta eramangarritasuna mugatzea, edo araudi aplikagarrian aitortutako beste batzuk, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez izatea ere.

Jakinarazpena berehala egin behar da, eskubideaz baliatzeko eskaera jaso eta hurrengo lanegunetik aurrera. Eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio fede-emailea jasoko du, eta, hala badagokio, bere esku dagoen eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen agiri eta bestelako informazioekin batera joango da.

Ahal den guztietan, tratamenduaren ardura duen organoari lagunduko dio, eskubidea baliatzen duen interesdunari erantzun eta bete dezan.

n) Tratamenduaren ardura duen organoari laguntzea segurtasun-neurrien arloan dituen betebeharrak betetzen, agintari eskudunei edo interesdunei segurtasun-neurrien berri ematen (lortuak eta saiatuak) eta/edo jakinarazten, eta datu pertsonalak babesteari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiten eta agintari eskudunei aldez aurreko kontsultak egiten, tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa kontuan hartuta.

Halaber, agiri honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusitako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren ardura duen organoaren esku, eta, hala badagokio, tratamenduaren ardura duen organoak egindako auditoriak eta ikuskapenak egiten lagunduko du.

o) Idatziz jasotzea, baita formatu elektronikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 30.5 artikuluan aurreikusitako kasuetan ere, tratamenduaren ardura duen organoaren kontura egiten diren tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa, gutxienez DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak jasotzen dituena.

p) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen dituela frogatzen duten ebidentziak izatea, hala nola auditoretzen betetze-mailari edo emaitzei buruzko aurretiazko ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek tratamenduaren ardura duen organoaren eskura jarri beharko dira, hark eskatuta. Era berean, kontratua indarrean dagoen bitartean, tratamenduaren ardura duen organoaren esku jarriko ditu une bakoitzean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoria guztiak.

q) Tratamenduaren ardura duen organoari egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa ematea, datuak biltzen diren unean. Datuak biltzen hasi aurretik, tratamenduaren ardura duen organoarekin adostu behar da informazioa nola idatzi eta nola eman.

29.4.- Azpikontratazioei lotutako tratamendu-azpienkarguak

Kontratuak azpikontratazioa egiteko aukera ematen duenean, datu pertsonalak eskuratu behar diren kontratuaren exekuzioa azpikontratatu nahi duen kontratistak bere asmoaren berri eman beharko dio tratamenduaren ardura duen organoari, eta horrek dakartzan datu pertsonalen tratamenduak identifikatu beharko ditu, tratamenduaren ardura duen organoak baimena ematen duen ala ez erabaki dezan.

Bi baldintza hauek bete beharko dira, nolanahi ere, tratamenduaren ardura duen organoak baimena eman dezan, hala erabakitzen badu:

1. Azpikontratistaren datu pertsonalen tratamendua bat etortzea indarrean dagoen legediarekin, plegu honetan ezarritakoarekin eta tratamenduaren ardura duen organoaren jarraibideekin.
2. Kontratistak eta azpikontratistak datu pertsonalak tratatzeko enkargu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitakoekiko murriztaileak ez diren baldintzetan. Kontratu hori tratamenduaren ardura duen organoaren esku jarriko da, eskaera egiten zaionean, kontratua eta kontratuaren edukia egiaztatzeko.
   Kontratistak beste azpikontratista batzuk sartzeko edo ordezkatzeko edozein aldaketa egin nahi badu, aurreko moduan jardun beharko du. Bestalde, tratamenduaren ardura duen organoak kontuan hartu beharko du bi baldintza horiek bete behar direla aldaketa horiek baimendu ahal izateko. Baimen hori ez dela ematen ulertuko da, baldin eta kontratistak ez badu jasotzen 5 eguneko epean, tratamenduaren ardura duen organoak kontratistak emandako informazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

30.- EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIALAREN ETA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

30.1.- Lanen jabetza.

Egindako lanak (fase guztietakoak) botere adjudikatzailearen jabetzakoak izango dira. Hala bada, botere horrek noiznahi eskatu ahal izango du prestazioen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak eragozten ez badira.

Halaber, kontratistak eskatu dezake prestazioaren aldez aurreko harrera egiteko, eta botere adjudikatzaileak erabakiko du harrera hori onartu ala ez.

30.2.- Jabetza industriala eta intelektuala.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskaintzea objektu duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere adjudikatzaileari laga beharra.

Ondorioz, ekoizpenaren jatorrizko formatuz gain, jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak edukiko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, eta bereziki lortutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean zabaltzeko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek modu esklusiboan edukiko ditu, sinatzen den egunean dauden ustiapen-modu edo/eta euskarri guztietan, Jabetza Intelektualaren

Legearen Testu Bateginean aurreikusita dagoen gehieneko iraunaldian, eta munduko herrialde guzti-guztietan izango dira indarrean, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunpean dago lana edo azken produktua, eta horrez gain lan, zirriborro, eskema, aurretiazko dokumentu eta fluxu-diagrama guztiak, eta, multzoan hartuta, garapenerako egin diren eta jabetza intelektualaren eta industrialaren mendean egon daitezkeen lan guztiak ere bai.

Kontratatutako lanaren emaitzan txertatuko diren aurretiazko kontribuzioen gainean hirugarrenek eduki ahal dituzten erreserbei eta legezko eskubideei buruzko **informazio zehatza eman behar dio** kontratistak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari. Kontratistak nahitaez bermatu beharko du eskubide eta erreserba horien mendean dauden elementu guztien eskuragarritasuna, eta bere gain hartuko ditu horrek ekar ditzakeen kostuak.

Kontratistak bere gain hartu behar du eskubide horien inguruko erreklamazio guztien erantzukizuna, eta bere kontura izango dira ordainketa guztiak, eta, gainera, erreklamazioek sortzen dituzten kalte-galeren ordaina eman beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne.

Kontratuaren objektua **aplikazio informatikoak** egin eta garatzea denean, aurreko paragrafoan azaldu den hirugarrenen erreserbei eta legezko eskubideei buruzko informazioan nahitaez azaldu beharko dira erabilitako iturri guztiak, bertsioak eta jatorria, osagai bakoitzean aplikatutako lizentziak, eta konpilazioan ala egikaritzapenean erabili al diren.

Kontratistak eta prestatze-lanetan aritu diren pertsonek ezin izango dute erabili lana beren onurarako, ez kontratatutako lanaren filmazio, testu, marrazki, argazki edo antzekoen atalak hirugarren batzuei eman, ez eta edukia osorik ez partzialki argitaratu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak idatzizko baimena berariaz eman ezean. Era berean, ez dira saiatuko kontratutik eratorri ahal direnen berdin-berdinak edo antzekoak diren jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubiderik erregistratzen, eta eginbehar horrek iraun egingo du kontratua amaitzean ere. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeagatik sortzen diren kalte eta galeren erantzulea.
Kontratistak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lankidetzan aritzeko, eta alde horretatik, administrazio horrek eskatzen dion dokumentazio guztia sinatu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak klausula honetan aipatzen diren eskubide guztiak eskura ditzan, edo haren alde babes ditzan.

31.- ZIGORRAK

Kontratistak, legeak behartuta, akatsak konpondu beharko ditu eta kalte eta galerak ordaindu beharko ditu; gainera, SPKLn edo baldintza orokorren 38. klausulan aurreikusita dagoenaren arabera kontratua suntsiarazi ahal izango da; hori guztia gorabehera, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari honako arrazoi hauengatik:

31.1.- Arrazoiak eta zenbatekoak.

a) Hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 13.1 klausulan azaltzen diren ez-betetzeak: klausula horretan azaltzen diren zenbatekoak.
b) Epe osoa edo epe partzialak betetzean berandutzea: SPKLren 193.3 eta 193.4 artikuluetan azaltzen diren zenbatekoak, salbu eta kontratuaren klausula espezifikoen 13.2 klausulan besterik azaltzen bada.
c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 1 eta % 10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.1.4 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: gehienez ere azpikontratuaren zenbatekoaren **% 50**.
e) Baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatuta dagoena ez betetzea: berandutze-egun bakoitzeko zenbatekoa kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,01** izango da.
f) Eskaintzen bitartez hartu diren eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 1 eta % 10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.
g) Kontratuaren klausula espezifikoen 12.2 klausulan azaltzen diren ingurumen, gizarte edo lan arloetako betebeharrak ez betetzea (ondorio horietarako, ulertuko da 12.2.2.1 klausula bete ez dela baldin eta soldatak ordaindu ez badira edo behin eta berriz berandu ordaindu badira edo hitzarmen kolektiboetan ezarrita daudenak baino soldata-baldintza txikiagoak aplikatzea modu astunean eta doloz): kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,5 eta % 10 artean**, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta hala badagokio, errepikapenaren arabera.
h) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plan hori nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko euro bat kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euro bakoitzeko.

31.2.- Prozedura.

Zigorren ezarpena kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta jardun hauek egin beharko dira hori erabakitzeko:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, ikusi diren ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuz.
b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.
c) Kontratazio-organoaren ebazpena.
d) Guztizko edo zatikako ordainketak gauzatzeko kontratistari ordaindu behar zaizkion kopuruetatik kenduz bildu; bestela, aipatutako ordainketetatik kendu ezin badira, eratu den bermetik kenduta bildu.

32.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Baldintza hauen arabera ordainduko da prezioa:

32.1.- Emandako edo egindako zerbitzuen ziurtapena.

32.1.1.- Kontratistak kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan aipatutako erregistroan aurkeztu beharko d(it)u emandako zerbitzuen ziurtagiria(k), datu hauek zehaztuta:

a) Espedientearen kodea
b) Kontratistaren izena edo sozietate-izena, eta IFZ.
c) Emandako edo egindako zerbitzuen zerrenda balioetsia, itundutako prezioaren edo prezioen arabera (BEZik gabe).
d) Azpikontratistek egindako prestazioen datuak: azpikontratisten izenak, egindako lana, itundu diren eta ordainketa-epearekin zuzeneko zerikusia duten baldintzak.
e) Zerbitzuak eman ziren aldia (ziurtagiria partziala bada).

32.1.2.- Epea eta baldintzak.

Epe eta baldintza hauen arabera aurkeztu beharko dira:

a) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa bakarra ezartzen badu: ziurtagiri oso bat aurkeztuko da, kontratuaren betearazpena amaitu eta hogeita hamar (30) eguneko epean.
b) Klausula espezifikoen 5.2 klausulak prezioaren ordainketa partzialak ezartzen baditu: ziurtagiri partzialak aurkeztuko dira, klausula horretan ezarritako aldizkako mugaegun bakoitzetik hogeita hamar (30) eguneko epean.

32.2.- Adostasuna eta fakturaren erregistroa.

Kontratuaren arduradunak onetsi beharko du emandako zerbitzuen ziurtagiria, erregistratu eta hogeita hamar (30) eguneko epean, eta egun horretan bertan bidali beharko dio onespen-dokumentuaren kopia bat kontratistari, posta elektronikoz.

Onespen-dokumentuaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztuko du kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazten den erregistroan, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarrita dagoenaren arabera, hogeita hamar (30) eguneko epean, zerbitzua ematen den egunetik aurrera.

32.3.- Ordainketa.

Zerbitzu-ziurtagiria onetsi eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du botere adjudikatzaileak prezioa. Ordainketa egitean berandutuz gero, berandutze-interesak ordaindu beharko zaizkio kontratistari, aurreko paragrafoan aipatutako epea amaitzen den egunetik aurrera, bai eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina ere, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, emandako zerbitzuen ziurtagiria(k) eta faktura(k) kontratistak aurkeztu ondoren hasiko da zenbatzen interesak sortzeko epea. Kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan azaltzen den erregistroan aurkeztu behar dira. Kontratistak ez badu betetzen fakturak administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte, faktura dagokion erregistroan aurkezten den egunetik hasita; betiere, botere adjudikatzaileak ez badu fakturari buruzko onespenik eman, eta ez badu, kasuan kasu, haren ordainketarik egin.

Kontratistak elektronikoki eman eta igorri beharko ditu fakturak, Euskal Autonomia Erkidegoko fakturazio elektronikoaren zerbitzuaren bidez. Fakturak ez dira elektronikoki eman eta igorri beharko fakturaren zenbatekoa (BEZa barne) 5.000,00 eurokoa edo txikiagoa bada, edo faktura horien hartzaileak Euskadik atzerrian dituen ordezkaritzak badira, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoaren zerbitzua eta Fakturen Kontularitza Erregistroa arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko abenduaren 26ko Aginduan. Hala ere, faktura elektronikoa eman eta igorri beharko dute abenduaren 27ko 25/2013ko Faktura elektronikoa bultzatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko Legearen 4. artikuluan aipatutako entitateek, baldin eta faktura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren organismo autonomoei eta partzuergoei egindako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik bada.

33.- KONTRATUA ALDATZEA

33.1.- Baldintzak.

Kontratua perfekzionatu ondoren, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango du, kontratuaren klausula espezifikoen 16. klausulan eta SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Interes publikoko arrazoitzat jotzen dira indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian aurrekontu-egonkortasunaren jomuga lortzea helburu dutenak.

33.2.- Prozedura.

33.2.1.- Kontratua aldatzeko prozeduraren barruan honako jarduera hauek egin beharko dira betiere:

a) Traktu bakarreko kontratuak eta segidako traktuko kontratuak, argi zehaztuta badago zenbat unitatek osatzen duten kontratuaren objektua:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, aldaketa eskatzen duten interes publikoko arrazoiak zehaztuta, aldaketaren garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboa, aldaketaren inguruko gorabeherak eta haien egiaztapen objektiboa.
2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.
3) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.
4) Entzunaldia proiektuaren edo zehaztapen teknikoen idazleari, baldin eta kontratazio-organokoa ez den hirugarren bat bada, hiru (3) egun balioduneko epean.
5) Txosten juridikoa.
6) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.
7) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere, halakorik balego.
8) Aldaketaren iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratua bada (salbu eta zerbitzua SPKLren IV. eranskinean jasotako bat bada), eta aldaketa SPKLren 205.2 artikuluko a) eta b) letretako kasuetako batengatik egin bada.

b) Unitate-prezioen araberako segidako traktuko kontratuak, kontratua egitean ez bada argi zehaztu guztira zenbat unitatek osatzen duten prestazioa:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, hasieran aurreikusitakoak baino benetako premia handiagoak daudela justifikatzen duena eta haien zenbateko ekonomikoa zehazten duena.
2) Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.
3) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.
4) Txosten juridikoa.
5) Kontratazio-organoaren ebazpena eta kontratistari egindako jakinarazpena.
6) Aldaketaren iragarkia argitaratzea kontratatzailearen profilean, eta, horrekin batera, kontratistaren alegazioak eta onetsi aurretik bildutako txosten guztiak ere, halakorik balego.

33.2.2.- Jarraian azalduko diren kasu hauetan, gainera, beste jarduera hauek ere egin beharko dira:

1) Kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea aldatzen bada, kontratistak berriro doitu beharko du bermea, ebazpena jakinarazi eta hamabost (15) egun naturaleko epean.

2) Kontrol ekonomiko-fiskalaren aurretiko fiskalizazio-txostena egitea, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen duenean.

3) Gobernu Kontseiluak aldaketa baimentzea, bi inguruabar hauek gertatzen direnean:

a. Sektore publikoko kontratuen araudian adierazitakoa baino iraupen luzeagoa duten kontratuak, kasu jakinetarako, edo, orokorrean, kategoria jakin batzuetarako.

b. Aldaketak kontratua suntsiaraztea dakarrenean.

4) Kontratuaren klausula espezifikoen 9. klausulan baldintza jakin batzuk dauzkaten aseguru zehatzen bat eskatu bada eta kontratua aldatu ostean baldintza horiek eta/edo kontratuaren iraupena edo betearazpen-epea aldatzen badira, kontratistak beste aseguru-poliza bat kontratatu beharko du aurrekoaren antzeko estaldura eta kapitalekin, edo lehendik daudenak luzatu beharko ditu, aldatu behar diren ezaugarriak estali ahal izateko, eta hala badagokio, epealdi osagarria ere estaltzeko.

5) Aldaketa AKPAn aurreikusita ez badago, Aholku Batzorde Juridikoaren txostena egin behar beharko da, baldin eta kontratuaren prezioa edo gehieneko aurrekontu mugatzailea 6.000.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, eta aldaketak kontratuaren % 20 baino gehiago aldatzea badakar. Zenbait aldaketa elkarren segidan adosten badira, guztiak kontuan harturik kalkulatuko da ehunekoaren aldaketa.

33.2.3.-Betiere, aldaketa SPKLren 153. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera formalizatuko da, eta SPKLren 63. eta 207. artikuluen arabera argitaratuko da.

33.3.- Ondorioak

Klausula honetan ezarritakoaren arabera adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat. AKPAn aurreikusita ez dagoen aldaketarik egonez gero, SPKLren 206. artikuluan aurreikusita dagoenari jarraituko zaio.

34.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren klausula espezifikoen 14.1 klausulan azpikontratazioa onartzen bada, prestazioaren zati bat azpikontratatu ahal izango du kontratistak, klausula horretan ezartzen diren mugen barruan eta klausula honetan xedatuta dagoenaren arabera.

Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du botere adjudikatzailearen aurrean kontratua betearaztearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barne hartuta.

34.1.- Kontratuaren arduradunari jakinaraztea.

a) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaltzen den moduan, eta azpikontratazioa atal horretan zehazki azaltzen diren baldintzen arabera egin nahi badu: **VI.2 ERANSKINEAN** agertzen den deklarazioa igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egiten hasi baino bost (5) egun baliodun lehenago, gutxienez.

b) Kontratistak lizitazio-fasean EKABen II. zatiko D atala osatu badu baldintza orokorren 13.3.2.1 klausulan azaltzen den moduan, baina azpikontratazioa EKABen agertzen direnez bestelako baldintza batzuetan egin nahi badu, edo aipatu den apartatua bete ez badu: **VI.2 ERANSKINEAN** agertzen den formularioa igorri beharko dio kontratuaren arduradunari, behar bezala beteta eta sinatuta, azpikontratista lanak egiten hasi baino hamabost (15) egun baliodun lehenago, gutxienez.

34.2.- Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

Kontratistak egiaztatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa-baldintzak bete dituela; hain zuzen ere, baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan

ezarrita dauden mugak errespetatu behar dituzte, baldintza orokorren 28.3 klausulan xedatuta dagoenaren arabera, eta, gainera, azpikontratisten kasuan, baldintza orokorren 32.1.1 klausulako d) letran xedatuta dagoenaren arabera.

35.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEA OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA.

35.1.- Kontratua lagatzea

35.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

1. Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluaren arabera, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.

2. Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

35.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

- Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 bete behar den ala ez dioena, eta, bete behar izanez gero, betekizun hori betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.

4. Txosten juridikoa.

5. Lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.
6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.
7. Kontratua lagatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.
8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

35.1.3.- Baldintzak.

35.1.3.1.-Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimen dezan, baldintza hauek bete behar dira:

1.- SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako betekizunak betetzea.

2.- Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarria ez izatea kontratua adjudikatzeko.

3.- Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

35.1.3.2.-Ez da baimenduko kontratuaren lagapena egitea baldin eta kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

35.1.3.3.- Eskritura publikoan formalizatu beharko da kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena.

35.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

35.2.- ABEEa osatzen duten kideak aldatzea.

35.2.1.-ABEEaren osaeraren aldaketak berekin badakar bertako kideen kopurua handitzea, txikitzea edo kide bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea, honela jokatuko da:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, aldatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

- ABEEaren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.
- ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela eta ABEEa eratu behar duten enpresa guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betearazi dela dioena.

4. Txosten juridikoa.

5. ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.

7. ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEak beste berme bat gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berria formalki eratuta eduki arte.

35.2.2.- ABEEa osatzen duen kide baten edo batzuen bategite, zatiketa nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea dela-eta sozietate xurgatzailea, bategitearen emaitza dena, banantzearen onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez bada ABEE honetako kideetako bat, baldintza orokorren 35.2.1 klausulan azaltzen diren izapideak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearaztearen baldintza izan ezik.

35.2.3.- ABEEko kideren bat konkurtso-egoeran deklaratzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9 artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, bat etorrita SPKLren 212.5 artikuluak kontratua betearazteko beste berme nahiko batzuk emateari buruz xedatzen duenarekin. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eskaera hauetakoren bat egiteko:

- Kontratua betearazten jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.
- Kontratua betearazten jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barne.

2. Baldintza orokorren 35.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3.enean izan ezik) azaltzen diren izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kide guztiekin jarrai dezala kontratua betearazten (konkurtso-egoeran daudenekin ere), kontratua behar bezala betearazteko besteko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu ABEE kontratistak, hain zuzen ere kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

VI.- KONTRATUA AZKENTZEA

36.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA

36.1.- Entregatzea eta dena behar bezala bete den egiaztatzea.

PTPAn ezarritako zehaztapenei jarraituz eta baldintza orokorren 8. klausulan azaltzen diren epeak betez entregatuko dira kontratuaren objektu diren prestazioak.

PTPAn besterik aurreikusten ez bada, honako hau izango da entregatzeko data:

- Traktu bakarreko kontratuetan: kontratistak prestazio guztiak kontratuaren arduradunari PTPAn zehaztutako forman eta formatuan entregatzen dizkion eguna.

- Segidako traktuko kontatuetan: kontratuaren iraupen-epe osoa amaitzen den eguna.

Entrega-datatik aurrera zenbatuta hamabost (15) egun balioduneko epean gehienez ere, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, itundutako baldintzak behar bezala bete direla ziurtatzeko, eta egiaztapen-txostena egingo du, hauxe adierazteko:

a) Baldintzak bete direla ondorioztatzen badu: kontratuaren harrera egiteko proposatuko du eta data bat ezarriko du horretarako —kontratuaren klausula espezifikoen 15.2 klausulan azaltzen den epearen barruan—; halaber, txostena igorriko dio kontratistari eta, espedientearen egiaztapen fisikoa egin behar bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari ere.

b) Baldintzak bete ez direla ondorioztatzen badu: ikusitako ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatu eta horiek konpontzeko jarraibideak emango ditu. Txostena igorriko dio kontratistari. Bertan, ikusitakoa zein epetan konpondu behar den zehaztuko du, eta azalduko dio bost (5) egun balioduneko epea duela idatzizko erreklamazioa aurkezteko txostenaren ondorioen aurka.

Aipatutako epea amaitu eta kontratistak erreklamaziorik egin ez badu, jarraibideekin ados dagoela ondorioztatuko da, eta nahitaez konpondu beharko ditu ikusi diren akatsak.

Kontratistak epe horretan erreklamazioa egiten badu, egiaztapen-txostena eta erreklamazioa igorriko zaizkio kontratazio-organoari, eta organo horrek hamabost (15) egun balioduneko epean eman beharko du ebazpena.

36.2.- Akatsak zuzentzea.

36.2.1.-Konpontzeko epea igarotakoan, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, emandako jarraibideak behar bezala bete direla ziurtatzeko, eta, gehienez hamar (10) egun balioduneko epean, beste egiaztapen-txosten bat egingo du:

a) Jarraibideak behar bezala bete direla ondorioztatzen bada: baldintza orokorren 36.1 klausulako a) apartatuan azaltzen diren jarduketak egingo ditu.

b) Jarraibideak bete ez direla ondorioztatzen bada: ikusi diren ez-betetzeak eta/edo akatsak identifikatuko ditu, eta egiaztapen-txostena igorriko die kontratistari eta kontratazio-organoari, zigorrak ezartzeko proposamenarekin batera eta, hala badagokio, inguruabarrak kontuan hartuta, jarduketa hauetakoren bat egiteko proposamenarekin batera:

1) Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea eta, horrez gain, bermea konfiskatzea eta kontratista behartzea botere adjudikatzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

2) Konpontzeko beste epe bat ematea eta zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 25.

Azpikontratistak ez baditu akatsak konpontzen emandako bigarren epean, kontratua suntsiaraziko da eta, horrez gain, bermea konfiskatuko da eta kontratista behartuko

da botere adjudikatzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

36.2.2.- Obra-proiektuak prestatzeko kontratuetan akatsak konpontzeko eta okerrak zuzentzeko, SPKLren 314. artikuluari jarraituko zaio.

36.3.- Harrera egitea.

Betiere, harrera egiten den arte, itundutako baldintzak behar bezala betetzeaz arduratuko da kontratista, baina kontratuaren arduradunak aldeko txostena egin edo zerbitzu partzialen egiaztapenak onartu arren, ez da inolako inguruabar salbuesle edo eskubiderik sortuko.

Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu itundutako baldintzak behar bezala bete direla, kontratuaren harrera egingo da.

Harrera-ekitaldian kontratuaren arduraduna eta kontratistaren ordezkaria egongo dira eta, espedientearen egiaztapen fisikoa egin behar bada, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko ordezkari bat ere bai. Kontratuaren arduradunak egin beharko du ekitaldirako deialdia, eta bost (5) egun baliodun lehenago igorri. Harrera-ekitaldiaren akta egingo da, bi aletan, eta bertaratu diren guztiek sinatu beharko dute akta hori.

36.4.- Likidatzea.

Kontratuaren izaerarengatik hala komeni denean eta/edo SPKLren 309.1 artikuluko bigarren paragrafoko aurreikuspena beren-beregi jaso denean kontratuaren klausula espezifikoetan, hogeita hamar (30) eguneko epean, harrera-edo adostasun-akta egiten denetik aurrera, likidazioa egingo dela erabakiko du kontratazio-organoak. Bada, kontratistari jakinaraziko zaio eta, hala badagokio, ordainduko zaio, baldin eta faktura ez bada aurkeztu harrera egin ondoren.

Harrera egin ondoren aurkeztu badu faktura kontratistak, faktura kontratuaren klausula espezifikoen 19.6.2 klausulan adierazitako erregistroan aurkezten den egunean hasiko da hogeita hamar (30) eguneko epea.

Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

37.- BERME-EPEA ETA BERMEA ITZULTZEA.

37.1.- Kontratistaren betebeharrak.

Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan ezarritako berme-epea hasiko da kontratuaren harrera egin eta hurrengo egunean. Epe horren barruan, kontratistak nahitaez konpondu beharko ditu, bere kontura, egindako lanek dituzten akatsak, baldin eta epe horretan halako akatsak daudela ikusi eta idatziz jakinarazi bada.

Akatsak konpontzeko behar bezala eta garaiz erreklamatu ondoren kontratistak ez baditu zuzentzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 100. artikuluan ezarritako nahitaez betearazteko bitartekoak erabili ahal izango ditu botere adjudikatzaileak.

Berme-epea amaitu eta botere adjudikatzaileak ez badu behar bezala eta garaiz eskatzen akatsak konpontzeko, kontratistak ez du izango inolako erantzukizunik egindako prestazioarengatik. Nolanahi ere, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan obra-proiektuak egiteko kontratuetarako ezarrita dagoena bete beharko da.

37.2.- Bermea itzultzea:

37.2.1.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-eperik ezartzen ez bada, kontratua likidatzeko erabakiaren barruan bermea itzultzeko edo ezerezteko agindua ere jasoko da.

37.2.2.- Kontratuaren klausula espezifikoen 15.4 klausulan berme-epea ezartzen bada, honako hau egingo da epe hori amaitu ondoren:

a) Berme-epean erreklamaziorik egin ez bada behar bezala eta garaiz, edo erreklamazioak egin arren konpondu badira: kontratazio-organoak ebazpena emango du eta, horren bidez, bermea itzultzeko edo ezerezteko aginduko du.

Berme-epea amaitu eta gehienez bi (2) hilabeteko epean emango da ebazpena, eta kontratistari jakinarazi. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari edo dagokion botere adjudikatzailearen organo baliokideari ere jakinarazi zaio.

b) Berme-epean erreklamazioak egin badira, behar bezala eta garaiz, baina kontratistak horiek konpondu ez baditu: kontratuaren arduradunak bidezkoak diren jarraibideak emango dizkio kontratistari, akatsak behar bezala konpon ditzan. Epe bat emango dio horretarako. Epe horretan, kontratistak jarraituko du izaten lanen kalitate teknikoaren eta SPKLren 311. artikuluko 2. apartatuan azaldutakoaren arabera egindako prestazio eta zerbitzuen arduradun, baina ez du inolako diru-kopururik jasoko berme-epea luzatzeagatik.
Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren arduradunak emandako epean ezarritako jarraibideak, bermea konfiskatu egingo da.

37.2.3.- Kontratuaren klausula espezifikoen 8.5 klausularen arabera onartzen bada bermearen zati proportzionala itzuli edo ezereztea, baldintza orokorren 37.1 eta 37.2 klausuletan ezarrita dagoenaren arabera jokatuko da. Berme-epea ezarri bada, harrera partziala egin eta hurrengo egunean hasiko da.

37.2.4.- Kontratua amaitzeko epea amaitu eta, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, urtebete igarota ez bada harrera-egintza formalik ez likidaziorik izan, bermeak itzuliko dira, edo ezereztu egingo dira, SPKLren 110. artikuluan aipatutako erantzukizunak argitu ondoren. Kontratuaren balio zenbatetsia 100.000,00 euro baino gutxiagokoa bada eta kontratista ETE bat bada, SPKLren 11.5 artikuluan jasotzen diren erreferentzien arabera definituta, sei (6) hilabetera laburtuko da urtebeteko epea.

38.- KONTRATUA AZKENDU BEHAR DENEAN.

SPKLren 211. eta 313. artikuluetan, 294. artikuluko c), d) eta f) letretan herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetan eta, hala badagokio, kontratuaren klausula espezifikoen 17. klausulan jasotzen direnez gain, honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

a) Botere adjudikatzailearen zuzendaritza- eta ikuskaritza-ahalmenak oztopatzea, SPKLren 190. artikuluko bigarren paragrafoan xedatuta dagoenaren arabera.
b) Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

VII.- GORABEHERAK ETA EGINTZEN BERRIKUSPENA

39.- GORABEHERAK

39.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Kontratazio-organoak ebatziko ditu administrazio-kontratuak interpretatzeari, betetzearen inguruko zalantzei, aldaketak egiteari, kontratua betearaztearen ondorioz kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna deklaratzeari, betearazpena eteteari, suntsiarazteari eta suntsiarazpenaren ondorioei buruz gertatzen diren auziak. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabete bateko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

39.2.- Prozedura.

Kasu zehatzetarako baldintza-agiri honetan eta sektore publikoaren kontratuen araudian ezarrita dagoena bazter utzita, espediente kontraesankorraren bitartez izapidetuko dira botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean kontratua betearazteari eta azkentzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak; honako jarduketa hauek egingo dira espediente horren barruan:

a) Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.

b) Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.

c) Kontratuaren arduradunaren txostena.

d) Aholkularitza juridikoaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, hala badagokio.

e) Kontu-hartzea, lehenago aipatu den epean egin beharrekoa.

f) Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatu ezean edo gorabeheren izaerak hala eskatu ezean, prozedura hau izapidetzeak kontratua geldiaraztea ekarriko du.

40.- EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da organo eskuduna SPKLren 44.1 artikuluan aurreikusitako egintzei aurkeztu dakizkiekeen kontratazio-arloko errekurtso bereziak ebazteko, SPKLren 44.2 artikuluan jasotako kontratuei dagokienez, baita behin-behineko neurriak hartzeari buruzko erabakiak hartzeko ere.

SPKLren 44.1 klausulan jasota ez dauden zerbitzu-kontratuei buruzko egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112, 121 eta 123. artikuluetan aurreikusita dauden errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

ERANSKINAK

LABURPEN-KOADROA

I. KONTRATUAREN KLAUSULA ESPEZIFIKO JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA.

☒	I.1 ERANSKINA.	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA KALKULATZEA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK
☐	I.2 ERANSKINA.	LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK
☐	I.3 ERANSKINA.	FORMULA MATEMATIKO(AR)EN SIMULAZIOA

ESKAINTZAN AURKEZTU

II. "A" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOAK.

☐	II.0 ERANSKINA.	DATU PERTSONALAK
☒	II.1 ERANSKINA.	EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)
☒	II.2 ERANSKINA.	BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA
☒	II.3 ERANSKINA.	ESKAINTZAN BILDUTAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEA
☒	II.4 ERANSKINA.	ABEEa FORMALKI ERATZEKO KONPROMISOA
☒	II.5 ERANSKINA.	KONTRATUAREN OBJEKTU DEN JARDUERA EGINGO DUTEN PERTSONEI DAGOKIENEZ HARTUTAKO KONPROMISOEN DEKLARAZIOA
☒	II.6 ERANSKINA.	ENPRESA-TALDE BEREKO ENPRESAK
☐	II.7 ERANSKINA.	ESKAINTZA / ESKAINTZA INTEGRATZAILEA ZEIN SORTATARAKO AURKEZTEN DUEN: SORTA-KONBINAZIOA

Baldin eta izapideak egiteko bitartekoak "elektronikoak ez badira":

☐	II.8 ERANSKINA.	JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

III. "A" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA, GUTUN-AZAL BAKARRA ESKATZEN BADA. "B" GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHARREKOA, BI GUTUN-AZAL ESKATZEN BADIRA.

☒	III.1 ERANSKINA.	ESKAINTZA EKONOMIKOA

BESTE BATZUK:

☐	EZ DA HALAKORIK ZEHAZTEN	
☐	III.2 ERANSKINA.	

IV. BESTE BATZUK.

☐	EZ DA HALAKORIK ZEHAZTEN	
☐	IV.1 ERANSKINA.	

V. ESKAINTZARIK ONENA AURKEZTU DUEN LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	V.1 ERANSKINA.	KONTRATUAREN INDARRALDI OSOAN ESKURA IZATEA BESTE ENTITATE BATZUEN KAUDIMENA ETA BALIABIDEAK
☒	V.2 ERANSKINA.	SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
☒	V.3 ERANSKINA.	BANKU-ABALAREN EREDUA. ABEE-ENTZAKO BANKU-ABALAREN EREDUA.
☒	V.4 ERANSKINA.	KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA. ABEE-ENTZAKO KAUZIO-ASEGURUAREN EREDUA.

VI. KONTRATISTAK (BETEARAZPEN-FASEAN) AURKEZTU BEHARREKOAK.

☒	III.2 Bis ERANSKINA.	SEXU-DELITUEN ZIURTAGIRIAK KONTSULTATZEKO KONTRATUA GAUZATUKO DUTEN LANGILEEN DATU PERTSONALAK

☒	VI.1 ERANSKINA.	ZERBITZUEN ZIURTAGIRIA ONESTEA
☒	VI.2 ERANSKINA.	AZPIKONTRATAZIOA KOMUNIKATZEA
☐	VI.3 ERANSKINA.	LAN-KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUEN DEKLARAZIOA

VII. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

☒	VII.1 ERANSKINA.	DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA
☒	VII.2 ERANSKINA.	DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ENKARGUA

I.1 ERANSKINA
OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUAREN KALKULUA: KOSTUAK ETA BESTELAKO GASTUAK

SE/22/21 espediente-zenbakia duen kontratuaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko kontuan hartu diren kostu eta gastuak honakoak dira:

A) ZUZENEKO KOSTUAK:	**103.149,15 €**
B) EGITURAZKO GASTU OROKORRAK:	**23.477,23 €**
C) ETEKIN INDUSTRIALA:	**5.193,62 €**

OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA:	**131.820,00 euro**
BEZ (%21):	**Ez dagokio**
OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA GUZTIRA:	**Ez dagokio**

KALKULUAREN ZEHAZTASUNAK

A) Zuzeneko kostuak	**103.149,15 €**
Pertsonal gastuak (batez ere eskulan-jarduera dela kontutan hartuta, jotzen da pertsonal gehiena erakundekoa dela zuzenean)	50.052,05 €
Prestakuntza-ekintza gauzatzeko beharrezko instalazio, ekipo eta materialak	53.097,10 €
B) Egiturazko gastu orokorrak	**23.477,23 €**
Prestakuntza-zerbitzuak gauzatzearen ondorioz zuzenean sortutako gastuak (komunikazioak, ura, argindarra, garbiketa, …)	23.477,23 €
C) Etekin industriala	**5193,62 €**
OINARRIZKO LIZITAZIO-AURREKONTUA	**131.820,00 €**

Espainiako Bankuaren sektore-ratioak jardueraka (2016)

Jarduera: Hezkuntza (bestelakoak)

CNAE: P855

Tamaina (negozio-zifra garbia): 2 eta 10 milioi €

Kontzeptuak	Ratioak	Oharrak
Pertsonaleko gastuak	%37,97	Sektore-ratioa %47,46% da. Erreferentzia gisa horren %80 hartu da, izan ere, batez ere eskulan-jarduera bat da eta batez ere erakundearen pertsonalak zuzenean egingo du.
Fabrikaziorako material eta gastu orokorrak	%40,28	
Egiturazko gastuak	%17,81	
Ustiapen-emaitza edo industria-etekina	%3,94	

I.3 ERANSKINA
FORMULA MATEMATIKO(AR)EN SIMULAZIOA

Prezioaren irizpidea balioesteko formularen simulazioa:

….. irizpidea balioesteko formularen simulazioa:

II.0 Datu pertsonalak

[1]Nik, …… jaunak/andreak (NAN: ……), nire izenean edo *[operadore ekonomikoa]* operadore ekonomikoaren ordezkaritzan (IFZ: ……), SE/22/21 zenbakiko espedienteari dagokionez,

HAU DEKLARATZEN DUT:

1.- Erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen duenak eskaintza aurkezten duen pertsona, erakunde edo enpresaren ordezkaritza duela.

2.- Erantzukizuneko aitorpen hau aurkezten duela, bertan jasotako datu pertsonalak barne, datu pertsonal horiek sinatu eta nahitaez aurkeztu behar diren administrazio-klausula partikularren agiriko gainerako eranskinetan aldi berean erreproduzitu behar ez izateko, horrela, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteko arauak eta datu horien zirkulazio libreari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko.

.....(e)n, 20…(e)ko ……(a)ren ……(e)(a)n.

Sinadura:

Datu pertsonalen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak **"Kontratazioaren kudeaketa"** izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

1. **Arduraduna**: dagokion kontratazio-organoa.
2. **Helburua**: kontratazio publikoaren prozeduraren fase guztiak kudeatzea, honako hauek barne: gauzatzea, aldaketak, luzapenak, epe- edo prezio-aldaketak, azken zenbatekoa eta azkentzea, bai eta esleipen-prozeduran atzera egiteko erabakiak, kontratua ez esleitzekoak edo gauzatzekoak, eta kontratua suntsiaraztea eragin duten gorabeherak.
3. **Legitimazioa**: interesdunak parte hartzen duen kontratu bat betetzeko eta tratamenduaren organo erantzuleari aplikatu beharreko legezko betebehar bat betetzeko beharrezko tratamendua.
4. **Hartzaileak**: datu pertsonalak interes legitimoa duenari eta Euskadiko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkio.
5. **Eskubideak**: zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta datuak tratatzea mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere.

INFORMAZIO OSOA VII.1 ERANSKINEAN, «DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA»

[1] Operadore ekonomiko bik edo gehiagok eskaintza bat aurkezten badute, eta konpromisoa hartzen badute adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko, operadore ekonomiko guztien ordezkariek sinatu beharko dute adierazpen hori.

II.1 ERANSKINA
EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)

AURKIBIDEA

Formulario honek zati eta atal hauek ditu:

I. zatia. Kontratazio-prozedurari eta botere edo entitate adjudikatzaileari buruzko informazioa.

II. zatia. Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.

A atala: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa.
B atala: Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa.
C atala: Beste entitate batzuen gaitasunaz baliatzeari buruzko informazioa.
D atala: Azpikontratistei buruzko informazioa, operadore ekonomikoa haien gaitasunean oinarritzen ez denean.

III. zatia. Baztertzeko arrazoiak:

A atala: Zigor-kondenei buruzko arrazoiak.
B atala: Zergak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaintzeari buruzko arrazoiak.
C atala: Kaudimengabeziari, interes-gatazkei edo hutsegite profesionalari buruzko arrazoiak.
D atala: Botere edo entitate adjudikatzailearen estatu kideko legeria nazionalean ezarrita egon daitezkeen baztertzeko beste arrazoi batzuk.

IV. zatia. Hautaketa-irizpideak:

α atala: Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra.
A atala: Egokitasuna.
B atala: Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.
C atala: Gaitasun tekniko eta profesionala.
D atala: Kalitatea bermatzeko sistemak eta ingurumena kudeatzeko arauak.

V. zatia. Hautagai kalifikatuen kopurua murriztea.

VI. zatia. Azken deklarazioak.

I. zatia: Kontratazio-prozedurari eta botere adjudikatzaileari buruzko informazioa

KONTRATAZIO-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA

I. zatian eskatzen den informazioa automatikoki lortuko da EKAB zerbitzu elektronikoa erabiltzen bada Europako Kontratazio Agiri Bakarra sortzeko eta betetzeko. Helbide honetan dago erabilgarri:
https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

Kontratatzailea nor den[2]	**Erantzuna**
Izena:	Eusko Jaurlaritza
Zertarako kontratazioa da?	**Erantzuna**
Kontratazioaren izenburua edo deskribapen laburra[3]:	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN, 2021-2022 IKASTURTEAN, "MUSIKARIAK IKASTETXEETAN" EUSKARAZKO HEZKUNTZA-PROGRAMA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA, HONAKO MAILA HAUETAKO IKASLEENTZAT: BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK, BATXILERGOA ETA ERDI-MAILAKO LANBIDE-HEZIKETAKO ZIKLOAK. KONTRATAZIOA BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN ORRIAN AGERI DIREN TERMINOETAN EGINGO DA
Botere edo entitate adjudikatzaileak espedienteari esleitu dion erreferentzia-zenbakia (hala badagokio)[4]:	SE/22/21

II. ZATIA: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa

A: OPERADORE EKONOMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Identifikazio-datuak	**Erantzuna**
Izena:	[ ]
BEZ zenbakia, hala badagokio[5]: BEZ zenbakia eduki ezean, adierazi, eskatuz gero, nortasuna adierazteko beste zenbaki nazional bat.	[ ] [ ]
Posta-helbidea:	[...]
Harremanetarako pertsona edo pertsonak[6]: Telefono-zenbakia: Helbide elektronikoa: Interneteko helbidea (web-orriaren helbidea, hala badagokio):	[...] [...] [...] [...]
Informazio orokorra	**Erantzuna**
Mikroenpresa bat, enpresa txiki bat edo enpresa ertain bat al da operadore ekonomikoa?[7]	☐ Bai ☐ Ez

[2] Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako lizitazio-iragarkiaren I. apartatuko I.1 puntuan agertzen den informazioa adierazi beharko da. Kontratazio bateratua baldin bada, kontratatzaile guztien izenak adierazi beharko dira.
[3] Ikusi lizitazio-iragarkiaren II.1.1 eta II.1.4 puntuak.
[4] Ikusi EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkiaren II.1.1 puntua.
[5] Espainiako herritar edo operadore ekonomikoek IFZ adierazi behar dute; Espainian bizi diren atzerriko herritarrek, AIZ; EBko estatu kideren bateko operadore ekonomikoek, IFK-BEZa edo Europar Batasunaren barruko IFK, edo, hala badagokio, DUNS zenbakia; Europar Batasunetik kanpoko estaturen bateko operadore ekonomiko atzerritarrek, DUNS zenbakia adierazi behar dute.
[6] Behar beste aldiz errepikatu harremanetarako pertsonei buruzko informazioa.
[7] Ikusi Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko gomendioa, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruzkoa (2003-05-20ko 124. AO L, 36. or.). Estatistikak egiteko soilik eskatzen da datu hori.
Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiagoko operadore ekonomikoa; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 2 milioi euro.

Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiagoko operadore ekonomikoa; urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: gehienez 10 milioi euro.

Kontratazio erreserbatua bada bakarrik[8]: operadore ekonomikoa tailer babestua edo gizarte-enpresa al da, edo kontratua enplegu babestuko programen esparruan betearazteko asmoa al du?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna baiezkoa bada:	
Zein da desgaitasuna duten edo gizarte-egoera ahulean dauden langileen ehunekoa?	[…]
Beharrezkoa bada, adierazi zer kategoriatan dauden desgaitasuna duten edo gizarte-egoera ahulean dauden langileak.	[…]
Hala badagokio, operadore ekonomikoa ba al dago operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialen batean inskribatuta, edo ba al du ziurtagiri baliokiderik? (adibidez, (aldez aurreko) sailkapen-sistema nazional baten esparruan)[9]?	☐ Bai ☐ Ez ☐ Ez dagokio
Erantzuna baiezkoa bada:	
Erantzun atal honetako gainerako galderak, B atala eta, hala dagokionean, zati honetako C atala. Hala dagokionean, bete V. zatia eta, edonola ere, bete eta sinatu VI. zatia.	
Adierazi zerrendaren edo ziurtagiriaren izena, eta inskripzio- edo ziurtapen-zenbakia:	[…]
Baldin eta inskripzio-ziurtagiria edo ziurtapena formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek:	(web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde edo agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […] […]
Adierazi zein erreferentziatan oinarritzen den inskripzio edo ziurtapena eta, hala badagokio, zerrenda ofizialean lortutako sailkapena[10]:	
Jaso al dira inskripzio edo ziurtapenean eskatutako hautaketa-irizpide guztiak?	☐ Bai ☐ Ez
Erantzuna ezezkoa bada:	
Adierazi, gainera, IV. zatian falta den informazioa; A, B, C edo D atalak, hala badagokio.	
Kontratazioaren iragarkian edo baldintza-agirietan HALAKORIK ESKATZEN BADA (bestela ez):	
Operadore ekonomikoak aukera izango al du ziurtagiri bat aurkezteko Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zergen ordainketari buruz, edo informazioa emateko botere edo entitate adjudikatzaileak ziurtagiria zuzenean eta doan lortu dezan edozein estatu kidetako datu-base nazional baten bitartez?	☐ Bai ☐ Ez
Baldin eta dokumentazioa formatu elektronikoan badago, adierazi datu hauek:	(web-orriaren helbidea, dokumentua sortu duen erakunde eta agintaritza, dokumentazioaren erreferentzia zehatza): […] […] […] […]
Parte hartzeko modua	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste batzuekin batera ari al da parte hartzen kontratazio-prozeduran[11]?	☐ Bai ☐ Ez

Enpresa ertaina: operadore ekonomiko hori ez da mikroenpresa, ezta enpresa txikia ere; 250 langile baino gutxiago; urteko negozio-bolumena: gehienez 50 milioi euro; urteko balantze orokorra: gehienez 43 milioi euro.

[8] Ikusi kontratuaren klausula espezifikoen 20.7 klausula eta EBAOn argitaratutako lizitazio-iragarkiaren III.1.5 puntua.

[9] Ikusi baldintza orokorren 11.5 klausula.

[10] Erreferentziak eta sailkapena, hala badagokio, ziurtapenean daude.

[11] Bereziki, talde, partzuergo, partaidetzako enpresa edo antzeko batean (ABEE).

Erantzuna baiezkoa bada, ziurtatu gainerako interesdunek bereizitako EKAB formularioa aurkeztu dutela[12].	
Erantzuna baiezkoa bada: a) Adierazi operadore ekonomikoak zein eginkizun betetzen duen taldean (arduradun nagusia, ataza zehatzen arduraduna, etab.): b) Adierazi kontratazio-prozeduran batera parte hartzen duten gainerako operadore ekonomikoak: c) Hala badagokio, talde parte-hartzailearen izena:	 a): […] b): […] c): […]
Sortak	**Erantzuna**
Hala badagokio, adierazi operadore ekonomikoak zein sortatarako aurkeztu nahi dituen eskaintzak:	[…]

B: OPERADORE EKONOMIKOAREN ORDEZKARIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hala badagokio, adierazi operadore ekonomikoa kontratazio-prozedura honetan ordezkatzeko baimena duten pertsonen izena eta helbidea.

Ordezkaritza, izanez gero	**Erantzuna**
Izen-abizenak: Jaiotza-eguna eta -lekua, hala badagokio:	[…] […]
Zer kargutan edo zer gaitasunetan jarduten duen:	[…]
Posta-helbidea:	[…]
Telefono-zenbakia:	[…]
Helbide elektronikoa:	[…]
Beharrezkoa bada, adierazi ordezkaritzari buruzko informazio zehatza (moduak, irismena, helburua…)	[…]

C: BESTE ENTITATE BATZUEN GAITASUNAZ BALIATZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Baliabidea	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoa beste entitate batzuen gaitasunean[13] oinarritzen al da IV. zatian aurreikusitako hautaketa-irizpideak betetzeko?	☐ Bai ☐ Ez

Erantzuna baiezkoa bada, bereizitako EKAB formulario bat aurkeztu behar du entitate bakoitzak, behar bezala bete eta sinatuta, zati honetako A eta B ataletan eta III. zatian eskatutako informazioarekin.

Hemen sartuko dira operadore ekonomikoaren antolaketan zuzenean sartzen ez diren teknikariak edo erakunde teknikoak, eta bereziki kalitate-kontrolaren ardura dutenak.

Operadore ekonomikoak baliatuko dituen gaitasun zehatzei dagokienez, entitate bakoitzari buruz jaso behar da IV. zatian eskatutako informazioa[14].

[12] Operadore ekonomiko bi edo gehiago enpresa-talde batean aurkezten badira, edo adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa adierazten badute, operadore ekonomiko bakoitzak EKAB formulario bat bete eta sinatu beharko du, II, III, IV eta V. zatiak beteta. Operadore ekonomiko batzuek batera aurkezten badute eskaintza, adjudikaziodun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoarekin, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, AKPAren eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera.

[13] Gaitasuna esan arren, kaudimena ulertu behar da.

[14] Esate baterako, kalitate-kontrolaz arduratzen diren erakunde teknikoak badira: IV. zatia, C atala, 3. puntua.

D: AZPIKONTRATISTEI BURUZKO INFORMAZIOA, OPERADORE EKONOMIKOA HAIEN GAITASUNEAN OINARRITZEN EZ DENEAN

Atal hau bete beharko da baldin eta beren-beregi hala eskatzen bada kontratuaren klausula espezifikoen 14.2 klausulan.

Azpikontratazioa	**Erantzuna**
Operadore ekonomikoak asmorik al du kontratuaren zatiren bat hirugarrenei azpikontratatzeko?	☐ Bai ☐ No **Erantzuna baiezkoa bada, eta datu hori ezagutuz gero,** zerrendatu aurreikusitako azpikontratistak: […][15]

